AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

*ERMUA HIRIKO UDALA*

***UDALBATZARRAK 2013KO MAIATZAREN 22AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA***

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DE LA CORPORACIÓN EL DÍA 22 DE MAYO DE 2013**

| **Asistentes/*Etorritakoak*** | |
|---|---|
| **ALCALDE / *ALKATEA***<br>Carlos Totorika Izagirre | |
| **CONCEJALES(AS)/*ZINEGOTZIAK*** | |
| Félix Prol Salgado | |
| Lorena López García | Iker Sáenz de Zaitegi Perrino |
| José Luis Clemente Albiz | Jesús Mª. Sarasua Urriolabeitia |
| José Luis Araujo Araujo | Arritokieta Araiztegi Arrizabalaga |
| Natividad Alonso Estalayo | Jol Gisasola Garay |
| Miguel Ledesma Piñeiro | Rosa Caballero Rubio |
| Fernando Lecumberri Gaisán | |
| Francisco Javier Pérez Navarro | |
| Mónica Marín Peñuelas | |
| Virginia Arroyo Aburto | |
| **LA INTERVENTORA / *KONTUHARTZAILEA***<br>Idoia Izagirre Mendikute | |
| **EL SECRETARIO / *IDAZKARIA***<br>José Antonio Fernández Celada | |

| **Ausentes/*Etorri ez direnak*** |
|---|
| Manuel Graña Fernández |

*ERMUA ANTZOKIAN, bi mila eta hiruko maiatzaren hogeita biko arratsaldeko zazpiak direnean, orrialdearen hasieran*

En el ERMUA-ANTZOKIA, a las diecinueve horas del día veintidós de mayo de dos mil trece, en primera convocatoria, se

*adierazten diren udaleko kideak lehenengo deialdian bildu dira, ezohiko bilkuran.*

reúnen los/as miembros de la Corporación antes citados/as, en sesión ordinaria.

*Idazkariak bilkura hasteko behar den quoruma dagoela frogatu ondoren, alkateak hasiera eman dio bilkurari, eta berori publikoa dela esan ondoren, gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio.*

Una vez comprobada por el Secretario la existencia de quórum necesario para poder iniciar la sesión, el Alcalde abre la misma y la declara pública. Seguidamente se procede a tratar los asuntos incluidos en el Orden del Día.

*Totorika jaunak hartu du hitza, eta honako hau adierazi du: "aurreko bilkurara etorri zinetenok jakingo duzuenez, bilkuran aurrekontuaren aurkezpena egin zen. Jardunaldi hark bi zati izan zituen: lehen zatian –ordubete inguru–, aurkezpena egin zen, eta bigarrenean –beste ordubete–, eztabaida egin zen bilkurara hurbildu zen jendearekin. Gaurko bilkuran, berriz, eztabaida talde politikoekin egiteko aukera dugu.*

El Sr. Totorika da comienzo a su intervención manifestando que, quiénes tuvisteis la ocasión de venir en la anterior sesión en la que se hizo la presentación del presupuesto en una jornada en la hubo dos partes, aproximadamente una hora de presentación y otra hora de debate con las personas que estaban presentes del público. Hoy tenemos la ocasión de hacer el debate con los grupos políticos.

*Azaldu zenez, komeni da aurrekontuaren irakurketa desberdina egitea, komunikazioan oinarrituta, garai bereziki zaila bizitzen ari baikara, argi eta garbi. Izan ere, langabezia-egoera oso larria da gaur egun (6,2 milioi langabe daude Espainian), eta zailtasun ekonomiko handia dugu. Gainera, oso gizarte-zailtasun handiak ditugu langabeziaren ondorioz. Hori dela-eta, etxean baliabideak falta direla ikusteaz gain, hipotekek eta utzarazpenek larritasun handia eragiten dute. Horrela, beraz, gizarte-problematika larria dugu, baina, hori ez ezik, krisi politiko-instituzionala ere badugu, hau da, alderdi politikoek eta erakundeek izen ona galtzen ari dira. Izan ere, ematen dugun irudiaren arabera, badirudi ez garela espero bezala ari, ez diegula behar bezala erantzuten herritarrek dituzten arazoei, ez garela gardenak eta komunikazio-zailtasun handiak ditugula. Horregatik, gure eguneroko jarduna eta lan egiteko formulak berrikusi behar ditugu, eta, ildo horretan, aurrekontu-arloan ere gauza desberdinak*

Se explicó también la conveniencia de que hiciéramos una lectura distinta en claves de comunicación del presupuesto porque claramente estamos viviendo un momento especialmente complicado, complicado porque tenemos una dificultad económica con un momento de desempleo gravísimo, con 6,2 millones de personas paradas que tenemos en España; tenemos además unas dificultades sociales muy importantes derivadas del desempleo que hacen que se vivan no sólo la falta de recursos en casa sino la angustia de las hipotecas de los desahucios y por lo tanto tenemos una gravísima problemática social y tenemos también una crisis de tipo político-institucional, es decir, un enorme descrédito de partidos políticos y de instituciones por la sensación que trasladamos habitualmente de que no estamos a la altura, de que no damos respuestas a los diferentes problemas de la ciudadanía de que no somos transparentes, que tenemos gravísimas dificultades de comunicación y eso exige que revisemos

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

*egin behar ditugu, Udalak urtean onartzen duen dokumenturik garrantzitsuena baita aurrekontua. Hain zuzen ere, horrexegatik pentsatu dugu metodoa aldatzea eta ekitaldi honetan aurkezpena komunikazio-formatu desberdin batean egitea. Era berean, datorren ekitaldian, 2014. urteko aurrekontua egin aurretik metodologiari buruzko eztabaida bat egiten saiatu behar dugu, aurrekontuak beste era batera lantzeko modua aztertu ahal izan dezagun.*

nuestro día a día nuestras fórmulas de trabajo y eso justifica e invita a que hagamos cosas distintas en materia presupuestaria también, dado que es el documento más importante que aprueba el Ayuntamiento cada año y por eso el cambiar de método y hacer en este ejercicio una prueba de presentación en este formato de comunicación distinta y como decíamos también de intentar que en el ejercicio siguiente, para el presupuesto del año 2014 hagamos previamente un debate de metodología para ver cómo podemos trabajar de forma distinta los presupuestos.

*Adierazi beharra dago aurrekontuaren bidez arestian aipatutako aldaketei erantzun nahi zaiela. Izan ere, krisi ekonomikoari lotutako aldaketa horien ondorioz, gure aurrekontuen lehentasunek eta gure funtsen orientazioak eta jomugak bat etorri behar dute gizarte-premia berri horiekin.*

Deciros que el presupuesto intenta responder a los cambios que anteriormente citaba, cambios en claves de crisis económica que requiere que las prioridades de nuestros presupuestos y las orientaciones y destino de nuestros fondos sean acordes a estas nuevas necesidades sociales.

*Zinez uste dut Ermuko Udalak egin duela Euskadin ahaleginik handiena enplegu-arloko aurrekontuari dagokionez. Oso kopuru ekonomiko esanguratsuak, giza talde egokiak eta asmo handiko helburuak ditugu arlo horretan. Uste dut apustu sendoa egin behar dugula krisian edo hondamen ekonomikoa jasateko arriskuan dauden familien alde, hau da, enplegu bat (edo enplegu bakarra) galdu dutelako hipotekari aurre egin ezin dioten eta utzarazpen-agindua jasotzeko zorian dauden pertsonen alde. Ildo horretan, kopuru ekonomiko jakin batzuk ditugu, eta beste neurri jakin batzuk hartu ditugu familia horiei laguntzeko (aholkularitza eskaintzea, etxebizitzari eta abarri lotutako premiei erantzutea eta abar).*

Deciros que creo honradamente que el presupuesto en materia de empleo en el Ayuntamiento de Ermua es el que más esfuerzos hace a nivel del País Vasco. Tenemos unas cantidades económicas muy significativas, unos equipos humanos y unos objetivos ambiciosos en este campo; creo que tenemos una apuesta importante por estas familias que están en crisis o en riesgo de quiebra económica, es decir, personas que pueden encontrarse al borde del desahucio por incapacidad al haber perdido uno de los empleos habitualmente o el único que tenían para hacerse cargo de la hipoteca y tenemos también tenemos unas cantidades económicas y otra serie de medidas para apoyar asesorando o cubriendo en claves de vivienda etc., las necesidades de estas familias.

*Zerbitzu publikoei eusten dien aurrekontua da, eta alderdi horretan ez naiz*

Es un presupuesto que mantiene los servicios públicos y que en este campo no

*luzatuko. Modernizatu egin nahi dugu, eraginkorragoak izan nahi dugu, eta laguntza hobea eman nahi dugu herritarrei laguntzeko zerbitzuen eta Udalaren webgunearen bitartez. Halaber, proiektu berriak ditugu plangintza, ingurumen-arazoak eta lantzen ditugun alorrak berrikusteko; hau da, zerbitzuei duintasunez eutsi diegu. Hirigintza-garapen iraunkorrerako politika bat egituratzen ari da Plan Nagusiaren bidez, oso helburu garrantzitsuak planteatzen ari dira zuntz optikoa eta beste teknologia batzuk garatu eta ezartzeko eta, era horretan, jakintzaren gizarterantz aurrera egiteko ahaleginei dagokienez; eta, hori guztia, zorroztasun ekonomikoan oinarrituta. Ermuko Udaleko aurrekontua orekatua da, hau da, gure diru-sarrerak gure gastuak baino handiagoak dira, gure kreditu-maila oso txikia da, eta, beraz, egoera ekonomikoa ez da problematikoa gaur egun, baina etorkizunean pentsatu beharra dago.*

*Alderdi politikoen arteko eztabaidari ekingo diogu orain.*

*Hitza hartzeko hiru txanda egitea pentsatu dugu.*

*Hiru txandak batuta hogei minutu eskaintzea erabaki dugu, eta ahaleginak egingo ditugu erabakia betetzeko.*

*Formalki, Osoko Bilkurak lau puntu ditu: aktak onartzea, BILDU eta EAJ taldeen zuzenketen ezespena (bigarren eta hirugarren puntuak), eta aurrekontua onartzea.*

*Ohiko dinamikari jarraitu ordez, puntu horietako bakoitza formalki eztabaidatuko dugu gaur, eta eztabaidaren ondoren egingo dugu bozketa.*

*Hitz egiteko txandekin hasiko gara. Ohiko ordenari jarraiki, zinegotzi gutxien*

me voy a extender. Tenemos ambición por modernizar por ser más eficientes por atender mejor a los ciudadanos desde los servicios de atención a la ciudadanía desde la web municipal. Desde los nuevos proyectos para revisar el planeamiento, los problemas medioambientales, los diferentes campos que trabajamos, es decir hay un mantenimiento de los servicios públicos más que dignos. Hay una política de desarrollo urbanístico sostenible que se está articulando a través del Plan General, se están planteando objetivos muy relevantes en materia de esfuerzos por desarrollar e implantar la fibra óptica y otras tecnologías para avanzar hacia la sociedad del conocimiento y todo ello en claves de rigor económico. El Presupuesto del Ayuntamiento de Ermua es un presupuesto equilibrado; es decir nuestros ingresos son mayores que nuestros gastos, nuestro nivel de créditos es muy bajo y la situación económica por lo tanto, no es problemática a día de hoy pero hay que prevenir.

Ahora vamos a pasar al debate entre grupos políticos.

Hemos hablado para que se hagan tres rondas de intervenciones.

Hemos acordado una intervención de veinte minutos la suma de las tres y vamos a hacer un esfuerzo porque sea así.

Formalmente el Pleno tiene cuatro puntos que son la aprobación de actas, la desestimación de las enmiendas de BILDU y del PNV como segundo y tercer punto y el cuarto la aprobación del Presupuesto.

Cambiando la dinámica que seguimos en otras ocasiones, hoy procederemos a debatir formalmente cada uno de estos puntos y la votación de los mismos la haremos después del debate.

Empezamos con la ronda de intervenciones. El orden suele ser de grupos

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

*dituen taldearekin hasi, eta zinegotzi gehien dituenarekin amaituko dugu. Horrela, beraz, Ezker Anitza-IU taldeari emango diogu hitza lehenik".*

*Caballero andreak honako hau adierazi du: "arratsalde on Udal Osoko Bilkura honetara etorri zareten guztioi. Antzokia handi samar geratu zaigu; guk jende gehiago etortzea nahi genuen. Ongietorria emateko aurkezpen honen ondoren, adierazi nahi dut Ezker Batua taldeak bere garaian Batzarraren bileran urte honetatik aurrera aurrekontuak nola landu nahi genituen planteatu genuenean, ekimenak harrera ona izan zuela, eta, hortaz, gure iritzien eta, zehazki, Ermuko Ezker Batuaren Batzarraren bozeramaile naizen heinean emango ditudan iritzien ikuspegia aurrekontuen eta horiek lantzeko planteatutako moduaren analisi kualitatibo batean oinarrituta egongo da, herritarrek aurrekontuetan parte hartzeko ekimena kontuan hartuta. Halaber, gainerako talde politikoek aurkeztu dituzten zuzenketak nola landu diren aipatuko dugu, eta talde horiei gure iritzia azalduko diegu. Adierazi dudanez, analisia kualitatiboa izango da batez ere. Izan ere, zenbakiak hor daude, matematika eta ekonomia edozein erakunderen Biblia da (Udal batena, etxe batena, enpresa batena zein GKE batena), eta zenbakiek ematen dute edo ez dute ematen. Gure ikuspuntutik, eta nire ikuspuntu apaletik, ezin dugu esan zenbakiek ematen ez dutenik.*

*Oposizioak eginkizunen inguruan duen ikuspuntuari dagokionez, adierazi beharra dago oposizioari inoiz ez zaiola ukatu lan egiteko aukera, eta gehiago egin ez badugu gehiago ematerik izan ez dugulako izan da, apaltasun osoz esanda. Nolanahi ere, gure parte-hartze apaletik, eta*

con menor número de concejales a grupos con mayor número de concejales y por lo tanto, le damos la palabra a Ezker Anitza-IU.

La Sra. Caballero manifiesta, buenas tardes a todos y a todas los que nos acompañáis en esta sesión plenaria. Se nos ha quedado un poco grande el Antzoki, hubiéramos querido que la asistencia fuera mayor y la verdad es que desde nuestro grupo Izquierda Unida dicha esta presentación de bienvenida cuándo planteamos en su día en la reunión de la Asamblea cómo queríamos tratar los presupuestos a partir de este año la iniciativa fue recibida con sorpresa grata de tal manera que el enfoque de nuestras intervenciones y la mía en concreto como portavoz de la Asamblea de Izquierda Unida de Ermua va a ser sobre todo de un análisis cualitativo de los presupuestos y de la forma que se plantea de trabajarlos del resultado de una iniciativa de participación ciudadana en los presupuestos y de cómo se han trabajado las enmiendas que han presentado los otros grupos políticos a las cuales también les indicaremos nuestro posicionamiento y como iba diciendo el análisis sobre todo va a ser cualitativo más que cuantitativo porque los números están ahí, la matemática la economía es la Biblia de cualquier organización, sea un Ayuntamiento sea una casa, sea una empresa, sea una ONG y los números dan o no dan, no podemos decir desde nuestro punto de vista y desde mi modesto punto de vista como portavoz de IU que los números no den.

Los deberes visto desde la oposición y esta oposición no se le ha negado en ningún momento la participación en la elaboración de los mismos y si no hemos hecho más es porque humildemente no hemos llegado a dar más pero dentro de la modesta participación nuestra e intentando fiscalizar en la medida de

*Udal honek egiten duen guztia fiskalizatzeko asmoz, onartu beharra dago kontuak doitu izanaren meritua. Ez dugu esango bikaina izan denik, baina doikuntza hortxe dago; esan dezakegu Ermuko Udalak baduela jokatzeko marjina bat, eta, kualitatiboki, kontuan hartzen dugun marjina da.*

*Hori esan ondoren, eta Ermuko Ezker Batuak egin nahi duen balioespen kualitatiboari dagokionez, arestian ere adierazi dut batzorde irekiaren zein udalbatzar honen deialdiak balioesteko egin nuen lehen bileran oso harrera ona izan zutela gure Batzarrean, herritarren zati bat ordezkatzen zutelako. Ildo horretan, historikotzat har zitekeela ere aipatu genuen, eta, kritika konstruktiboa eginez, hori guztia edukian eta forman ongi eginez gero onuragarria izan litekeen zerbaiten hasiera izan zitekeela pentsatu genuen.*

*Hemen bertan lehen azalpena egin eta Ezker Batuaren Batzarrean berriz ere balioetsi ondoren, emaitzak beste itxura bat hartu zuen, eta alderdi hori helarazi nahi nuen bozeramaile naizen aldetik. Agian beste zerbait espero genuen, eta sinesgarritasun urriko eszenaratze bat izan zen herritarrentzat, lorpenen biografia bat baitzirudien. Berriz diot, Ermuko Ezker Batuaren Batzarraren bozeramaile gisa ari naiz, eta kritika konstruktiboa egin nahi dugu. Izan ere, ez dugu bertan gozo gelditu behar, eta ez dugu pentsatu behar dena ongi egiten ari garenik. Gauzak ongi egiten direnean esan egin behar da, baina errealitatea alde batera utzi gabe.*

*Ezker Batua taldeak ez du aurrekontuen aldeko botoa emango, ez baitugu nahi herritarrek aurrekontuetan*

lo posible todo lo que desde este consistorio se haga tenemos que reconocer que el mérito del ajuste de las cuentas está ahí tampoco vamos a decir que sea notable pero es un ajuste que está ahí y podemos decir que el Ayuntamiento de Ermua tiene un margen de juego que hasta lo que es cuantitativamente hablando es un margen de juego con el que contamos.

Y dicho esto y pasando a la valoración cualitativa queríamos hacer desde IU de Ermua como decía en la primera reunión que tuve para valorar estas convocatorias tanto de comisión abierta como este pleno fue muy bien recibida por nuestra Asamblea tanto en cuanto es representación de parte de la ciudadanía de este pueblo hasta el punto de que comentábamos que podía ser hasta un hecho calificado como de histórico y todo esto haciendo una crítica constructiva de que esto podría ser un comienzo de algo que podría resultar bien si lo hacíamos en fondo y forma bien.

El resultado después de la primera exposición que se tuvo también en este escenario y después de valorarlo nuevamente con nuestra Asamblea de IU ya cambió en tinte y quería trasladarlo como portavoz este aspecto y es que quizás esperábamos otra cosa y lo que se recibió por parte de la ciudadanía es una especie de puesta en escena que no terminó de convencer del todo porque parecía una biografía de logros recogidos, insisto que hablo como portavoz de la Asamblea de Izquierda Unida de Ermua; lo queremos trasladar así como una crítica constructiva para que no nos durmamos en los laureles y parezca que estamos haciéndolo todo bien aunque reconocer que cuándo las cosas se hacen bien hay que decirlo también pero sin perder de vista la realidad.

Nos vamos a permitir desde el grupo de Izquierda Unida no votar a favor de los presupuestos porque no queremos que se

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

*parte hartzeko Udal osoak aho batez bultzatu duen ikuspegia galtzea, baina kontrako botoa emateko asmoa ere ez dugu, ez bailitzateke bidezkoa izango; zati batzuk bat datoz Ezker Batuak udal-esparruan duen programarekin, eta beste batzuk landu egin beharko lirateke, eta hurrengo txandetan aipatuko ditugu.*

pierda la perspectiva que queremos iniciar toda la Corporación por unanimidad en el sentido de la participación ciudadana en los presupuestos pero tampoco queremos votar en contra porque no sería justo porque hay partes que están de acuerdo con nuestro programa de IU a nivel municipal y luego hay otras partes que quedarían por andar que ya comentaremos en las siguientes intervenciones.

*Lehen txanda hau horrela utzi nahi nuke, beste ezer gaineratu gabe. Gainerakoei entzun ondoren, eta geroago esango dena kontuan hartuta, zehaztuko dugu zergatik hartu dugun abstenitzeko erabakia".*

Como primera intervención quisiera trasladarla así no quisiera trasladar más después de oír las demás intervenciones y que en base a lo que se hable después ya iremos ajustando lo que nos ha derivado a posicionarnos en la manera que nos vamos a posicionar de abstención.

*Gisasola jaunak hitza hartuta, ondorengoa esan du: "lehenengo eta behin arratsalde on denori eta eskerrik asko hona etortzeagatik. Guretzat eta zuentzat badakigu ahalegin handia dena hona etortzea, eta benetan, nik pertsonalki, eskertzen dizuet, entzuteko edo nire mezua islatzeko aukera ematen didazuelako. Espero dut hasiera bat izan dadila, eta hurrengo urteetan aurrekontuak jorratzen jarraitzeko aukera edukitzea, eta gaur baino eta jende gehiago etortzea, eta iritzi eta aportazio gehiago egon daitezela.*

El Sr. Gisasola manifiesta que, gracias a todos y todas los que habéis venido hoy aquí. Yo personalmente valoro el esfuerzo que estáis haciendo. Es algo que nos cuesta a los que venimos habitualmente por lo tanto sabemos del esfuerzo que supone, yo lo agradezco y estoy seguro que esto nos permitirá seguir trabajando a favor de unos presupuestos en los que podamos participar todos y todas y que en años venideros los presupuestos sean más reflejo de lo que es la sociedad de Ermua con todos sus adjetivos y con toda la pluralidad que supone.

*Lehenengo eta behin esan behar dut EAJ/PNVren izenean guk ez dugula aurrekontu hauen kontra egingo, Aurrekontu hauetan agertzen den gauza asko ondo dagoela uste dugulako. Gizarte arloan aurkeztutako gauza asko momentu honetan oso aproposak direla uste dugu eta, beraz, iruditzen zaigu horren kontra egitea ez dela jarrerarik egokiena. Gu ere gobernagarritasunaren alde gaude. Uste dugu garai ekonomiko hauetan gobernagarritasunaren alde egin behar dela*

En primer lugar desde EAJ/PNV decir que no vamos a votar en contra de este presupuesto porque creemos que hay muchas cosas en las que en él se trabajan con las que estamos de acuerdo. Creemos que se está haciendo una labor social importante más necesaria que nunca en los tiempos que vivimos. No estamos a favor de muchas de las cosas que también en este presupuesto se han trabajado pero creemos que es un momento de favorecer la gobernabilidad y creemos que haríamos un flaco favor al

*eta, beraz, hasiera batetik esaten dugu gu abstenitu egingo garela aurrekontuetan, horrela gobernagarritasunaren alde egiten dugula pentsatzen dugulako.*

*Dena dela EAJ/PNVtik emendakin bat aurkeztu dugu, hiru propoposamenekin, gai batzuetan oraindik lan gehiago egin daitekeela guk uste dugulako. Hiru proposamen konkretu aurkeztuko ditugu, bai eta nondik atera daitekeen horiek aurrera eramateko dirua ere*

*Lehenik eta behin, guk uste dugu komeni dela eskailera mekaniko batzuk jartzea San Pelaiotik Ongaraira. Eta gu ez gara hori adierazi duten bakarrak. Izan ere, apirilaren 17an, Carlos Totorika alkateak berak eskailerak legegintzaldi honetan egingo zirela agindu zuen El Correo egunkarian. Bi urte igaro dira dagoeneko, eta eginda egon zitezkeen, gure ustez.*

*Aldapatik Ongaraira dauden 209 eskailera-mailak oinez ez egiteko aukera izatea proposatzen dugu guk. Izan ere, etorkizunean, ez dakit ikasteko nolako gaitasuna izango duten haurrek, baina gaitasun fisiko handia behintzat izango dute, eskolara joateko urtean 35.000 eskailera-maila igo ondoren. Gurasoek eta aitona-amonek ere gaitasun fisiko handia izango dute.*

*Diru kopuru handiagoa erabil daiteke garbiketan, oro har, eta parke, lorategi eta dauden zokoetako eskaileren mantentzean (eta zoko asko daude herri honetan). Nik uste dut jende askok sentitzen duela hori; niri, behintzat, jende askok helarazi dit. Beraz, zeregin horretarako diru kopuru handiagoa erabiltzea proposatzen dugu.*

*Era berean, gure herrian hain elkarte-sare garrantzitsua izatea zorte handia dela kontuan hartuta, elkarte horiei hasieran aurreikusi baino diru gehiago ematea*

pueblo de Ermua si votáramos en contra del presupuesto y por lo tanto no permitiéramos la gobernabilidad.

No obstante hemos hecho una enmienda en la que hemos trabajado tres aspectos concretos que ahora pasaré a detallaros y lo que hemos hecho también es dónde se puede conseguir el dinero de estos presupuestos para llevarlos adelante.

En primer lugar nosotros creemos que sería conveniente que pudiera haber unas escaleras mecánicas desde San Pelayo hasta Ongarai y no solamente porque lo digamos nosotros porque el día 17 de abril en El Correo el Alcalde Carlos Totorika prometió que esas escaleras se iban a hacer a lo largo de la legislatura. Ya han pasado dos años y creo que ya se podrían haber hecho.

Nosotros estamos proponiendo que esos 209 escalones que hay desde Aldapa hasta Ongarai se puedan hacer de una forma que sea distinta a la de ir andando porque vamos a tener en el futuro chavales que no sé cuál va a ser su capacidad lectiva pero desde luego capacidad física subiendo 35.000 escalones al año solo para ir a clase y sus padres, madres, abuelos y abuelas desde luego capacidad física sí que van a tener.

Se puede destinar una mayor cantidad de dinero a todo lo que hace referencia a limpieza. Mantenimiento de parques, jardines, de escaleras de todas esos recovecos que hay muchos en este pueblo. Yo creo que es un sentir que desde luego a mí me ha trasladado mucha gente; pedimos por lo tanto que a ese menester se pueda destinar una mayor cantidad económica.

También pedimos que teniendo la suerte que tenemos de que en este pueblo hay un tejido asociativo tan importante, pues que esas asociaciones puedan recibir más dinero

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

*proposatzen dugu.*

*Nondik aterako da diru hori? Guk lau proposamen ditugu. Lehenik eta behin, Ondasun Higiezinen gaineko Zergatik. Totorika jaunak oso aurrekontu ona egin dela esan du. Gure ustez, azken bost urteetan gutxienez, Ondasun Higiezinen gaineko Zergarekin espero baino diru gehiago bildu izan da. Horregatik, aurten diru-sarrera gisa aurreikusitakoa baino 110.000 € gehiago jartzea proposatzen dugu. Nolanahi ere, joan den urtean 210.000 € izan ziren, eta, gure ustez, 110.000 € gehiago bil daitezkeela esatea ez da, inola ere, neurriz kanpokoa.*

*Era berean, gure ustez langileen soldatarako partidan 686.000 € erabil daitezke adierazitako hiru ekimenetarako. Horretarako, aurreko urteetan zer ez den gastatu aztertu beharko litzateke, funtsean.*

*Joan den urtean, aurreikusi baino 555.000 € gutxiago gastatu ziren soldatetan, aurreko urtean 721.000 € gutxiago, aurreko urtean 2.172.000 € gutxiago, eta horrela beste urte askotan. Guk proposatzen dugu aurten, joan den urtean bezala, 555.000 € gutxiago gastatzea. Gainera, alkatetza-koordinatzaileak 60.000 €-ko gastua du aurrekontuan, eta adierazitako ekimenetan erabil litezke. Gure ustez, gaur egungo egoera orokorra kontuan hartuta, Udal honetan lanaldi osoko zinegotzi liberatu bat eta lanaldi-erdiko beste bat gutxiago egon litezke. Hortik 800.000 € aterako genituzke, eta adierazitako hiru ekimenetan erabil litezke.*

que lo que estaba previsto inicialmente.

¿De dónde va a salir ese dinero? nosotros tenemos cuatro propuestas; en primer lugar, del Impuesto de Bienes Inmuebles. El Sr. Totorika decía que se hace un muy buen presupuesto, nosotros decimos que durante los cinco últimos años por lo menos el Impuesto de Bienes Inmuebles siempre se ha recaudado bastante más de lo que se decía que se iba a recaudar. Nosotros proponemos que este año se ponga como ingreso 110.000€ más que lo se ha previsto, que en cualquier caso el año pasado fueron 210.000€, etc., creemos que no es en absoluto desmedido decir que se pueden recaudar 110.000€ más.

Creemos también que en la partida destinada al personal a sueldos, destinar 686.000€ a estas tres que saldrían básicamente de analizar qué es lo que en otros años no se ha gastado.

El año pasado se gastaron 555.000€ menos en sueldos de lo que estaba previsto, el año anterior 721.000€, el año anterior 2.172.000€ y así si nos remontamos durante muchos años más y nosotros lo que proponemos es que este año puede pasar lo mismo que el año pasado que se dejen de gastar 555.000€ que además hay un Coordinador de Alcaldía que supone unos 60.000€ al presupuesto que podrían destinarse también a esas iniciativas y creemos que en los tiempos que corren, pues somos un Ayuntamiento en el que podría haber un concejal liberado a jornada completa y un concejal a media jornada menos. De ahí es de dónde salen los 800.000€ que nosotros creemos que se podrían gastar en esas tres iniciativas.

*San Pelaioko eskaileretarako proposatu dugun kopurua egokia edo desegokia izan daiteke, baina, gure ustez, kopuru horrekin egin litezke, edo zati handi bat eraiki ahal izango litzateke. Nolanahi ere, eta behin baino gehiagotan esan dudalakoan nago, Eibarko kasua dugu ondoan; guk baino aldapa gutxiago dituzte, baina eskailerak egiten esperientzia handia. Izan ere, atzo bertan El Correok zioenez, arrapala mekanikoen 63. tartea inauguratu behar zuten, eta nik uste dut Ermuan urrun samar gabiltzala.*

*Esan nahi nuke, halaber, joan den asteazkeneko Batzordean gobernu-taldeari zuzenketa-proposamena egin genionean, gobernu-taldeak aurkako botoa eman zuela, baina diru-sarrerak 110.000 €-tan igotzeko proposamena egingarritzat hartu zen, eta gobernu-taldeak kontraproposamen edo zuzenketa bat egin du, Batzordean aztertu eta dagoeneko aurrekontuan islatuta dagoena, hain zuzen ere. Horren arabera, 110.000 € horietatik, 35.000 € TAO baterako parkimetroak jartzeko erabiliko dira (datozen egun, aste edo hilabeteetan zehatuta ikusiko duzue), eta 75.000 € Izarra Fundaziorako izango dira. Gu abstenitu egingo gara aurrekontuaren bozketan, baina garbi utzi nahi dugu gaur egun 35.000 € parkimetroetan gastatzea ez dela aukerarik onena guretzat, eta 75.000 € Izarra Centre Fundaziora bideratzea, Eskualdeko Enplegu Plan bat eta Tokiko Enplegu bat izanik, ez dela aukerarik onena, beste aukera asko baitaude diru hori inbertitzeko. Gainera, EAJ/PNV beti izan da horrelako erakundeei dirua ematearen aurkakoa, azkenean Udalbatzar honen kontroletik kanpo geratzen baita, eta beti izan gara Promosa eta Proimersa desagertzearen aldekoak. Kasu honetan, ez dugu uste beharrezkoa denik, 75.000 € horiek Ermuan enplegua sustatzeko erabil baitaitezke. Izan ere, tamalez, gogor egin behar dugu lan oraindik".*

Seguramente la cantidad que hemos puesto para las escaleras de San Pelayo estará acertado o desacertado pero creemos que es una cantidad con la que sería muy factible poder hacerlos o avanzar mucho en su construcción; en cualquier caso y creo que lo he dicho varias veces, tenemos el ejemplo de Eibar al lado que, al parecer tienen menos cuestas que nosotros pero bastante práctica de hacer escaleras porque ayer venía en El Correo que se iba a inaugurar el 63 tramo-rampas mecánicas y yo creo que Ermua nos quedamos un poco lejos.

Lo que también me gustaría decir es que en la Comisión del miércoles pasado cuándo nosotros hicimos esta propuesta de enmienda al equipo de gobierno el cual voto en contra, pero sin embargo ese aumento de ingresos que proponíamos de 110.000€ se ha visto como algo muy factible y por parte del equipo de gobierno ha venido una contrapropuesta o una enmienda que también se vio en esa Comisión y que ya está reflejada en los Presupuestos de que esos 110.000€ se destinaran 35.000€ en parquímetros para una OTA que en los próximos días, semanas o meses veréis concretado y 75.000€ para la Fundación Izarra y nosotros aunque nos vamos a abstener en el presupuesto sí queremos dejar claro que desde luego en estos momentos gastar 35.000€ en parquímetros no nos parece la mejor opción y que destinar 75.000€ a la Fundación Izarra Centre cuándo hay un Plan Comarcal de Empleo y un Plan Local de Empleo, pues no es la mejor opción porque hay muchas opciones para invertir ese dinero y sobre todo que EAJ/PNV siempre ha sido contrario a que a esas entidades se les destine dinero que al final sale del control de este Pleno y siempre hemos abogado por la desaparición de Promosa, Proimersa y en este caso creemos que no es necesario porque hay otras alternativas a que esos 75.000€ se puedan destinar a cuestiones que promocionen el empleo en Ermua que por desgracia tenemos

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

mucho trabajo que hacer.

*Saenz de Zaitegi jaunak, hitza hartuta, ondorengoa esan du: "Arratsalde on eta eskerrik asko, gure aldetik ere, etortzeagaitik.*

*Hemendik, Bildutik, zuzenean pasatuko naiz zergatik egin dugun osotasunaren zuzenketa azaltzera: Gure botoa aurrekontu hauei, aurreko urtean moduan, ezezkoa izango da, ez ezezko borobil-borobila, baina bai ezezko argia. Hiru puntutan oinarritzen gara horretarako:*

*Alde batetik, aurrekontuak urteetako inertziaz eginda daudela ikusten dugulako, eta egungo Ermua-eredua lehengoaren ondorioz daukagun karga bat dela; eta bestetik gaur egungo egoerak ongizateari keinu argia egitea eskatzen duela pentsatzen dugulako.*

*Ezetza emateko beste arrazoi bat, beti komentatu izan duguna,: gardentasunaren falta da aurrekontuak aurkezteko orduan, oso aurrekontu finantzarioak direlako eta herritar moduan oso zaila delako horietan murgiltzea, eta benetan esaten dizuet landu ditugula, baina asko kostatzen da gero herriari hemen zer dagoen benetan azaltzea, horregatik, gardentasun falta horrek arduratzen gaitu apurtxo bat.*

*Eta gero, hirugarren puntu moudan, aurrekontu partehartzaileak egiteko bidean ipini gara, eta aurrekontu partehartzaileak izateko bidean-edo baldin bagaude, aurrekontuak modifikatzeko aukera eduki beharko genuke, bai talde politikoen aldetik, bai Ermuko herritarren aldetik: edozein herritarrek pentsatzen badu zeozer modifikatu daitekeela, behintzat aukera edukitzea.*

En su turno de intervención, el Sr. Sáenz de Zaitegi ha manifestado lo siguiente: "Buenas tardes, y muchas gracias por vuestra asistencia.

En nombre de Bildu, voy a pasar directamente a exponer la razón por la que hemos presentado la enmienda a la totalidad. Al igual que el año pasado, vamos a votar en contra de estos presupuestos. No va a ser una negativa categórica, pero sí clara. Para ello, nos apoyamos en tres puntos:

Por una parte, vemos que los presupuestos se han realizado con la inercia de otros años, y que el modelo actual de Ermua es una carga que nos ha llegado como consecuencia del modelo anterior. Por otra, pensamos que la situación actual exige un claro guiño a favor del bienestar.

Otra razón por la cual vamos a votar en contra es la que siempre hemos comentado: falta de transparencia a la hora de presentar los presupuestos, ya que se trata de unos presupuestos muy financieros y, como ciudadanos y ciudadanas, es muy difícil sumergirse en ellos. Sinceramente os digo que los hemos estudiado detenidamente, pero cuesta mucho exponer realmente a la ciudadanía en que consisten. De ahí nuestra preocupación por dicha falta de transparencia.

Como tercer punto, quiero manifestar que si en verdad estamos en camino de elaborar unos presupuestos participativos, deberíamos contar con la posibilidad de modificarlos, tanto los partidos políticos como los ciudadanos y ciudadanas de Ermua. Si alguien piensa que hay algo que se debería modificar, al menos debería contar con la posibilidad.

*Orokorrean hitz eginda, nik uste dut badela benetan hitz egiteko momentua. Ermuko Udalaren aurrekontuari buruz argi eta garbi hitz egiteko esango genuke 19 milioiko aurrekontuak daudela gutxi gorabehera.*

*Aurrekontuak aurkezten direnean diru-sarrerak eta gastuak aipatzen dira, baina guk uste dugu, aurrekontuak ondo ulertzeko, bai… diru-sarrerei eta gastuei buruz hitz egin behar dela, baina bai eta ere esan behar dela: zer betebehar duen Udalak, zenbat ordaindu behar duen, zeintzuk izango diren diru-sarrerak eta zein izango den zorra, hau da, zeini zango den gero Udalaren zorra, zein zor daukan Udalak, epe luzera eta epe laburrera…*

*Hori guztia ateratzeko eta jasotzeko pila bat lan egin behar da, eta aurrekontuak benentan gardentasunez aurkeztu behar baditugu hiru kontzeptu horiek oso argi ikusi behar dira, eta ez dira bereizita egon behar batetik Udala eta bestetik Promosa, Proimersa, IMD… eta batetik bestera salto egin behar zorra non dagoen zorra, diru-sarrerak non dauden, non gastuak, zer ordaindu behar den, zer pasatzen den batetik bestera… jakiteko. Aurrekontuaren entramadoa oso zaila da ulertzen, eta guk benetan ariketa zintzoa egin dugu aurrekontuak aztertzeko.*

*Herriari esan behar zaiona da zein den benetako zorra. Alkateak askotan aipatu du, baina zorra aipatzean oso kontzeptu finantzarioea hitz egiten da batzuetan: amortizazioa, zorra, hau, hori eta bestea… Ermuko Udalaren benetako zorrak, edo aurten 2013 urtean aurre egin behar zaion zorra, ia 3 milioikoa da, eta epe luzera daukagun zorra 18 milioikoa da. Hori da herriari esan behar zaiona.*

*Aurrekontuak ez dira aurtengo gauza bat bakarrik, lehendik datozen gauzak dira, eta aurrera begira daukagun ibilbidea.*

En general, yo creo que ya es hora de que nos pongamos a hablar en serio. Y hablando claro en lo referente al presupuesto del Ayuntamiento de Ermua, diría que hablamos de un presupuesto de alrededor de 19 millones.

Cuando se presentan unos presupuestos, se enumeran los ingresos y los gastos, pero nosotros creemos que para entender bien los presupuestos, sí… es necesario hablar de ingresos y gastos, pero hace falta decir, también, qué obligación tiene el Ayuntamiento, cuánto tiene que pagar, con qué ingresos se va a contar y cuál será la deuda, es decir, cuál va a ser luego la deuda del Ayuntamiento, qué deuda tiene el Ayuntamiento a corto y largo plazo.

Para reflejar y recoger todo eso, es necesario hacer muchísimo trabajo, y si de verdad queremos presentar los presupuestos con transparencia, esos tres conceptos deben estar claramente reflejados; no hay que diferenciar Ayuntamiento por una parte, y Promosa, Proimersa, IMD, etc por otra, no hay por qué saltar de un lado a otro para saber dónde está la deuda, los ingresos, los gastos, o cuánto hay que pagar. El entramado del presupuesto resulta muy difícil de entender, y nosotros hemos realizado un ejercicio sincero para estudiar los presupuestos.

A la ciudadanía hay que decirle a cuánto asciende la verdadera deuda. El alcalde lo ha mencionado en muchas ocasiones, pero cuando se habla de deuda, a veces se enumeran conceptos muy financieros: amortización, deuda, esto, lo otro… La verdadera deuda a la que el Ayuntamiento de Ermua ha de hacer frente en 2013 es casi de 3 millones, y la deuda que tenemos a largo plazo asciende a 18 millones. Eso es lo que hay que decir a la ciudadanía.

El presupuesto no es algo exclusivo de este año, es algo que viene de lejos, el trayecto que tenemos delante. Resulta

*Argazki osoa ikusi behar da: zer daukagun ordaintzeko eta zer diru-sarrera eduki behar dugun horretarako, zeintzuk diren diru-sarrerak, horietatik zein diren garrantzitsuenak eta zein ordainketari egin behar diogun aurre, ezta? Dena ikusi behar da: diru-sarrerak, gastuak, zer ordaindu behar dugun, zer jaso behar dugun, nondik, eta azkenik zein den zorra, epe laburrera eta epe luzera. Hori argi esan behar zaio herriari.*

*Herriak pentsatzen badu edo alkateak esaten badu 8 milioiko geldikina edo erremanentea daukagula… zelan erabili behar dugu geldikin hori? Zer esaten du legeak egin behar dela geldikin horrekin? Hori azaldu behar zaio herriari.*

*Guk ikusten duguna da herri-eredu bat eraiki dugula, baina gaurko egoerak, krisi-egoera honek, dirua gastatu aurretik gauzak asko pentsatzea eskatzen duela, iaz ere esan genuen moduan.*

*Apurka-apurka ikasten ari gara, eta ermuar moduan, Ermuan bizi garenok eta gure lana eta dena Ermuan daukagunok, aurrera atera nahi dugu gure herria. Jakin behar dugu eta herriari kontatu, eta horixe da hain zuzen gure gaurko ariketa: ermuar moduan udalaren egoera zelan ikusten dugun herriari kontatzea eta zer arrisku egon daitekeen aurrera begira; ongizatearen alde herriari keinu bat egitea eta laguntzea.*

*Iaz ere kontra bozkatu genuen: tasak eta zergak igotzearen kontra, eta aurten ere gure ezetza emango dugu, tasa eta zergak %2 igoko direlako berriro. Herritarrak zigortzen ari gara berriz ere, eta herrian gero eta langabetu gehiago daukagu, ia 1.500, kopuru hori gainditu ez bada honezkero… baina IBIa (ondasun higiezinen*

necesario ver toda la fotografía: cuánto tenemos que pagar, qué ingresos necesitamos para ello, a cuánto ascienden los ingresos, cuáles son los más importantes y a qué pago hemos de hacer frente, ¿no? Hay que ver todo: ingresos, gastos, cuánto debemos pagar, cuánto vamos a recibir, de dónde, y, por último, a cuánto asciende la deuda a corto y largo plazo. Hay que decírselo claramente a la ciudadanía.

Si la ciudadanía piensa o el alcalde dice que tenemos un remanente de 8 millones, ¿a qué debemos destinar dicho remanente? ¿Qué dice la ley acerca de lo que hay que hacer con dicho remanente? Eso es lo que hay que explicar a la ciudadanía.

Lo que nosotros vemos es que hemos construído un modelo de pueblo, pero que la situación actual, esta situación de crisis, obliga a pensar mucho las cosas antes de gastar el dinero, tal y como manifestamos el pasado año.

Vamos aprendiendo poco a poco, y como ermuarras, quienes vivimos en Ermua y quienes tenemos el trabajo y todo en Ermua queremos sacar adelante nuestro pueblo. Debemos saber y debemos contárselo a la ciudadanía; ése es precisamente nuestro ejercicio de hoy: contarle a la gente, como ermuarras, cómo vemos la situación del Ayuntamiento y qué peligros podemos tener en un futuro. Debemos hacer un guiño y ayudar a la ciudadanía en su bienestar.

El pasado año también votamos en contra, en contra de la subida de tasas e impuestos, y este año volveremos a hacerlo, puesto que las tasas e impuestos van a volver a subir un 2%. Estamos castigando nuevamente a la ciudadanía, cuando cada vez tenemos más gente parada en nuestro pueblo, casi hay 1.500, si es que no se ha

*gaineko zerga) igotzea planteatzen ari gara, zergak igotzea, ez, ordea, herritarrei laguntzea.*

superado ya esa cifra. Sin embargo, estamos planteando subir el IBI, subir los impuestos; no estamos plantendo ayudar a la ciudadanía.

*Bai, izan daiteke aurrekontu hauek ongizatearen alde egitea, sozialak izatea neurri batean, baina uste dugu askoz ere gehiago izan behar direla, eta diru gehiago erabili behar dela horretan, zeren Gizarte Ongizateko zinegotziak gero azalduko duen moduan, ongizate eta laguntzetarako aurrekontuan jarrita dagoen zenbatekoaren %80 baino gehiago gastatu da dagoeneko.*

Es posible que estos presupuestos apoyen el bienestar, que sean unos prespuestos sociales en cierta medida, pero creemos que deben ser algo más y que es necesario destinar más dinero a ello, ya que, como más adelante expondrá el concejal de Bienestar, más del 80% del importe destinado en el presupuesto a bienestar y ayudas ya se ha gastado.

*Gaur gure asmoa da Aurrekontuari zergatik esaten diogun ezetz azaltzea, herri eredu honek, daukagun herri-ereduak behartzen gaitu horretara. Gure ordainketei aurre egiteko aurrekontu batzuk behar ditugu, baina ez bakarrik aurtengo ordainketei begira, bai eta datorren urtera begira zer edukiko dugun kontutan izanda.*

Hoy es nuestra intención exponer la razón de nuestro voto en contra al presupuesto. Es nuestro modelo de pueblo lo que nos obliga a ello. Necesitamos unos presupuestos que hagan frente a nuestros pagos, pero no solo mirando a los pagos que tenemos el presente año, sino teniendo en cuenta lo que nos vamos a encontrar al año siguiente.

*Uste dugu, eta gero azalduko dugu pixka bat gehiago nahi baduzue zeintzuk diren gure zuzenketak edo emendakinak, dirua aurreztu behar dugula eta ongizatean gehiago gastatu.*

En nuestra opinión –y, si queréis, luego explicaremos más detenidamente en qué consiste muestra enmienda–, debemos ahorrar dinero y gastar más en bienestar.

*Gehiago hitz egin dezakegu eta aurrekontu partehartzaileak, gardentasuna eta abarretara joan. Berdintasuna ere aipa dezakegu, hor ere inertziaz egiten dugu lan, baina plangintza erreal bat egin behar dela uste dugu, korresponsabilitatearen alde eta daukagun emakumeen etxe potente honi benetan laguntzeko; euskararen inguruan ere hitz egin ahal dugu, nola suspertu euskara administrazioan, kalean, eta benetako plan bat martxan jarri; immigrazioa ere aipatu behar da, ingurumena, garapena… baina aurten uste dut berriz ere herritarrei laguntzea dagokigula, benetan laguntzea, baina bene-benetan.*

Podemos seguir hablando de presupuestos participativos, de transparencia, etc. También podemos hablar de igualdad, y hemos de decir que también en dicha materia trabajamos por inercia, pero nosotros creemos que hay que hacer una planificación real, a favor de la corresponsabilidad y ayudando de verdad a nuestra potente casa de la mujer. También podemos hablar de euskera, de cómo podemos fomentar el euskera en la administración, en la calle, y debemos poner en marcha un verdadero plan. También podemos hablar de inmigración, de medio ambiente, de desarrollo… pero creo que también este año nos corresponde ayudar a la ciudadanía, pero ayudarle de verdad.

*Hori ez da aurrekontu hauetan islatzen eta horregatik uste dugu intertziaz*

Pero eso no ha sido reflejado en los presupuestos, y por eso creemos que son

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

*egindako aurrekontuak direla, urtez urte, urtez urte, 2011, 2012, 2013, aurrekontu guztiak berdinak, berdinak… Hor murgiltzea oso zaila da eta kontzeptuak erlazionatzea: Promosa, Proimersa, UKE… oso zaila da, ez da bat ere erraza, askoz ere errazago egin behar dira jendearentzat.*

*Nire aurkezpena euskaraz egin ondoren, orain erderaz azalduko dut."*

*Saenz de Zaitegi jaunak honako hau adierazi du: "gure aurtengo jarrera joan den urtekoa baino garbiagoa da. Joan den urtean, oinarri handirik gabe aurrekontuen aurkako botoa eman genuela leporatu ziguten, baina, zezenari adarretatik heldu ondoren, Ermuan bizi garen, Ermuan lan egiten dugun eta gure herria jasaten ari den egoeraz kezkatuta gauden pertsonen ikuspuntutik ulertuta, ikusten dugu aurrekontu simetrikoak, inertziaz berdinak ditugula. 2011, 2012 eta 2013ko aurrekontuek antz handia dute, baita fisikoki ere.*

*Aurrekontuetan murgiltzen bagara, oso zaila da ulertzea nola dauden eginda. Udala dugu, Promosa, Proimersa eta IMD ditugu. Aurrekontuak aipatzen ditugunean, diru-sarrerak eta gastuak aipatu behar ditugu, eta horrela aurkezten dira, baina ordainketak egiteko eta diru-sarrerak jasotzeko betebeharrak ere baditugu. Gainera, zorra dugu, epe laburrera eta luzera ordaindu behar dugun zorra, eta hori adierazi behar zaie herritarrei*

*Aurten, ia 3 milioi euroko zorrari egin behar diogu aurre, eta 18 milioi euroko zorra dugu guztira. Herriak jakin egin behar du hori. Zein da Udalaren plana? Soberakina dugu, gauza batzuk egin dira eta erresistentzia-kutxa bat dugu, baina noiz*

unos presupuestos realizados por inercia. Cada año, en 2011, 2012, 2013, todos los presupuestos son iguales. Resulta muy difícil sumergirse ahí, resulta muy difícil relacionar conceptos: Promosa, Proimersa, UKE… Hay que ponérselo mucho más fácil a la gente.

Tras mi presentación en euskera, voy a exponer nuestra postura en castellano.

El Sr. Sáenz de Zaitegi manifiesta que, nuestra postura este año es si cabe más clara que el año pasado que se nos echo en cara que habíamos votado en contra de los presupuestos sin mucho fundamento pero después de haber cogido el toro por los cuernos, intentar entender desde una persona, desde un grupo de personas que vivimos en Ermua, trabajamos en Ermua y nos preocupamos por la situación en la que está sufriendo el pueblo vemos que tenemos unos presupuestos simétricos, iguales por inercia 2011, 2012, 2013 todos se parecen hasta físicamente.

Si buceamos dentro de los presupuestos es muy complicado entender cómo están construidos. Tenemos el Ayuntamiento, tenemos Promosa, Proimersa el IMD. Cuando hablamos de presupuestos tenemos que ver ingresos y gastos así se presentan pero también tenemos obligaciones para hacer pagos, tenemos obligaciones para recibir ingresos y luego tenemos una deuda, una deuda a la que hay que hacer frente a corto plazo y a largo plazo y eso es lo que hay que contarle al pueblo.

Este año tenemos que hacer frente a una deuda de casi 3 millones de euros y en total tenemos una deuda de 18 millones de euros, eso es lo que tiene que saber el pueblo. ¿Cuál es el plan del Ayuntamiento? Tenemos remanente, se han hecho cosas y

*arte iraungo du erresistentzia-kutxak? Urtero 3 milioi euro ordaintzen jarraitu behar badugu, bi edo hiru urtetan porrot egingo dugu. Nola ziurtatuko ditugu diru-sarrerak? Kontsumoaren bidez, baina… krisia badago? Jendeak ez du kontsumituko, eta kontsumitzen ez badu, Eusko Jaurlaritzak ez du dirurik emango; zergak ziurtatuko ditugu, jendeari zergak igotzen jarraituko dugu, urari eta estolderiari % 2ko igoera ezarriko diegu, eta jendea lanik gabe geratzen ari da.*

tenemos una caja de resistencia, pero la caja de resistencia ¿hasta cuándo va a durar? Si tenemos que seguir pagando 3 millones todos los años, en dos o tres años hemos hecho quiebra, ¿cómo aseguramos los ingresos? Si funciona el consumo pero ¿si hay crisis? La gente no consume y sino consume el Gobierno Vasco no da dinero, vamos a asegurar los impuestos, vamos a seguir subiendo los impuestos a la gente, vamos a subir los impuestos de agua, alcantarillado en un 2%, la gente sigue yendo al paro.

*Jendeari lagundu behar diogu, aurrekontu sozial handi samar bat dago, eta askoz ere argiagoa izan behar du. Gizarte-larrialdietarako dirua jarri behar da. Zehaztuko dut gehiago gero, bigarren txandan.*

Vamos a ayudar a la gente, hay un presupuesto social interesante que tiene que ser muchísimo más claro. Hay que meter dinero para ayudas de emergencia social, después en la segunda intervención hablaremos más claro.

*Funtsean, aurrekontuak aipatzen ditugunean, keinu garbi bat egin behar diogu gaur egun sufritzen ari den eta gose dagoen jendeari. 150 pertsona baino gehiago dabiltza eskean egunero jateko, eta batzuek ez dituzte seme-alabak eskolako jantokira eramaten ordaindu ezin dutelako. Zertan ari gara?*

En principio nosotros cuando hablamos de los presupuestos decimos, hay que hacer un guiño, clarísimamente a la gente que está sufriendo y está pasando hambre, hay más de 150 personas pidiendo para comer todos los meses, gente que no lleva a sus hijos e hijas a la escuela al comedor porque no pueden pagar los comedores, ¿a qué estamos jugado?

*Hitz egin dezakegu euskararen, immigrazioaren eta tokiko garapenaren inguruan. Zergatik ez gara tailerrez, gaur egun dugun industriaz kezkatzen? Zergatik ez dugu enpresa-zuzendaritzekin hitz egiten, nolako gabeziak dituzten ikusten eta zuzenean laguntza ematen? Itxieraren zain egon gabe. Bai, produkzio-sistema aldatu behar da, I+G+Bn inbertitu behar da, bai, jakina, baina gaur egun tailerrak hiltzen ari zaizkigu. Langabezian geratzen ari den jendeari laguntzeko askoz larrialdi-plan zuzenagoa behar dugu.*

Podemos hablar de euskera, podemos hablar de inmigración, de desarrollo local ¿por qué no nos preocupamos de los talleres, de la industria que tenemos hoy en día, hablamos con las direcciones de empresa, vemos qué carencias tienen y ayudar directamente? y no esperamos a que se cierre. Sí, hay que cambiar el sistema productivo, hay que invertir en I+D+I, sí, por supuesto que sí pero hoy en día se nos están muriendo los talleres. Tenemos que tener un plan de emergencia muchísimo más directo con la gente que se está quedando en el paro.

*Berdintasunaz hitz egin dezakegu. Emakumearen etxea bikaina da, baina lan egin behar da, erantzunkidetasunean oinarritutako kanpainak egin behar dira, eta*

Podemos hablar de igualdad. Tenemos una casa de la mujer buenísima pero hay que trabajar más, hay que hacer campañas con corresponsabilidad y ser activistas de la ayuda

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

*emakumeentzako laguntzen aldeko aktibista izan behar dugu.*

a las mujeres, clarísimamente.

*Ingurumenaz hitz egiten badugu, aurten 2.200.000 € izan dira zabor-kuotetan. Egia esan, edukiontzi marroia jarrita diru gehiago ordaindu beharko dugu, baina ez dago ingurumenaren inguruan sentsibilizatzeko kanpainarik, botatzen dugun zaborraren % 80 ez da birziklatzen, eta edukiontzi berdea ordaintzen jarraituko dugu, beti bezala.*

Si hablamos de medioambiente este año 2.200.000€ en cuotas de basura. Realmente si hemos puesto el contenedor marrón vamos a pagar más dinero, pero no hay campañas de sensibilización en medioambiente, el 80% de la basura que tiramos no se recicla, seguiremos pagando el contenedor verde por siempre.

*Horregatik guztiagatik emango dugu aurkako botoa. Guk ekarpenak eta zuzenketa garbiak eta zehatzagoak egin nahi ditugu. Gure ustez, inertziaz egindako aurrekontuak dira, eta ez datoz bat herritarrek gaur egun benetan behar dutenarekin. Herritarrek laguntza eskatzen dutenean eta jateko eskatzen dutenean, lagundu egin behar zaie".*

Por todo esto vamos a votar que no. Nosotros queremos hacer aportaciones y enmiendas claras y más concretas. Creemos que son presupuestos hechos por inercia y que no se ajustan a lo que hoy realmente el pueblo está necesitando, cuando el pueblo pide ayuda y está pidiendo para comer hay que ayudarle.

*Lecumberri jaunak honako hau adierazi du: "lehenik eta behin, gainerako kideek bezalaxe, etorri izana eskertu nahi dizuet hemen zaudeten herritarroi, eta eskerrak eman nahi dizkiet Ezker Anitzari eta EAJ/PNVri agertu duten jarrera lagungarriagatik, abstentzioarekin izan bada ere, eta aurrekontuen balioaren birtualtasuna ukatu ez izanagatik. Bilduri dagokionez, ez dakit euskaraz, baina liluratuta nago euskarazko ia 13 minutu gaztelaniazko 4 direla ikusita. Horrek esan nahi du, zalantzarik gabe, ez dudala jaso bozeramaileak esan duen guztia.*

El Sr. Lecumberri manifiesta que, en primer lugar como el resto de los compañeros agradecer la presencia de los vecinos y vecinas que nos acompañan, agradecer la postura de Ezker Anitza y de EAJ/PNV por su postura favorecedora, aunque sea con la abstención, y no negar la virtualidad o la validez de los presupuestos y en cuanto a Bildu decir que, no se euskera, pero me maravilla como casi 13 minutos en euskera se resumen en 4 minutos en castellano, eso quiere decir que algo se me ha escapado sin duda de todo lo que ha dicho su portavoz.

*Bilduko bozeramaileak adierazi duenez, aurrekontuak berdinak dira urtero; datu bat baino ez dut emango, gizarte-zerbitzuen esparruan behintzat hori egia ez dela frogatzeko. Udalak gizarteratzeko bideratzen dituen laguntzen partidak % 833ko igoera izan du 2011tik 2013ra bitarte.*

Dice el portavoz de Bildu que los presupuestos son similares de un año a otro; solamente voy a aportar un dato para demostrar que por lo menos en el tema de Servicios Sociales no es así. La partida de ayudas municipal de inclusión social del año 2011 al 2013 se ha incrementado en un 833%

*Horregatik, ez dut oso ongi ulertzen antzekotasunarena.*

con lo cual lo de la similitud no lo entiendo muy bien.

*Jakina, aurrekontuetan diru-sarrerak eta gastuak adierazi behar dira. Hori egia da, eta, gainera, bat etorri behar dute. Ekonomiaren eta matematikaren paradoxa da, baina bat etorri behar dute.*

Evidentemente en los presupuestos hay que hablar de ingresos y gastos, esto es así y además curiosamente tienen que cuadrar es una paradoja de la economía y de la matemática pero tiene que cuadrar.

*Bilduk osoko zuzenketari gaineratutako hainbat zuzenketa partzial aurkeztu dituenez gero, erantzun egingo diot, edo ohar batzuk egingo ditut aurkeztu dutenaren inguruan, eta, gainera, haiek osoko zuzenketaren bi lerrotan diotena azpimarratu nahi dut, arrazoia dutelako: aurreikuspen errealagoak egin behar dira joan den urtekoekin alderatuta, eta hartatik ikasi beharra dago.*

Como Bildu ha presentado una serie de enmiendas parciales que acompañan a la enmienda a la totalidad me voy a permitir contestarle o hacerle algunas apreciaciones con respecto a lo que han presentado y además quiero insistir en lo que ellos dicen porque tienen razón en dos líneas de su enmienda a la totalidad que, hay que hacer previsiones de verdad más reales comparando con lo del año pasado y, aprender de ello.

*Aurkeztu diguten lehen zuzenketarekin hasiko gara, hots, autonomia pertsonalerako Legeari lotutakoarekin. Hain zuzen ere, 50.000 €-ko igoera proposatzen dute. Nik ulertzen dut gai horiek errazak, erakargarriak direla eta demagogiarako bidea ematen dutela, baina bistakoa da ez dela ganorazkoa, eta joan den urtekoak baino aurreikuspen errealagoak egin behar badira, zuek diozuen bezala, egin dezagun alderaketa; joan den urtean, 273.980 € zituen partida horrek, bitan banatuak: etxeko laguntza-zerbitzua eta On Egin. Inork 2012ko ekitaldiko kontuaren likidazioa ikusteko lana hartu badu, aitortutako betebeharrak 156.154,48 €-ra baino iristen ez direla ikusiko zuen (112.355 € etxeko laguntza-zerbitzurako dira, 4.000 ordu inguru baitira). Zergatik gertatzen da hori? Jakingo duzuenez, Etxeko Laguntza Zerbitzua gure 21. zerga-ordenantzan araututa dago, eta hiru kontzeptu biltzen ditu: Arreta Pertsonalerako Etxeko Laguntza Zerbitzua, Etxeko Garbiketarako Laguntza Zerbitzua eta On Egin (etxez etxeko janari zerbitzua).*

Empezamos por la primera enmienda que nos presentan que, es Ley para la Autonomía personal, se propone un incremento de 50.000€. Yo comprendo que estos temas son fáciles son golosos se prestan al punto de demagogia pero evidentemente carece de rigor y como vosotros decís que hay que hacer las previsiones más reales comparando con lo del año pasado pues vamos a comparar; entonces el año pasado efectivamente esta partida estaba dotada con 273.980€ que se desglosan en dos partidas, servicio de ayuda domiciliaria y On Egin, si alguien se hubiera tomado la molestia o la precaución de ver la liquidación de la cuenta del ejercicio 2012 vería que las obligaciones reconocidas son tan solo de 156.154,48€ que corresponden al servicio de ayuda a domicilio 112.355€ que aproximadamente son unas 4000 horas ¿por qué ocurre esto? Porque como sin duda sabrán el Servicio de Ayuda a Domicilio que se reglamenta en nuestra ordenanza fiscal nº 21 comprende tres conceptos: el Servicio de Ayuda Domiciliaria de Atención Personal, el Servicio de Ayuda Domiciliaria para Limpieza del Hogar y On Egin, servicio de comida a

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

domicilio.

*Aurrekontuetan azalduta dagoenez, etxeko laguntza-zerbitzuaren orduko kostua 27,08 € da. Orduan zer gertatzen da? Erabiltzaileari etxeko garbiketa-zerbitzua etortzen zaionean, 21. Zerga-ordenantza horretan hainbat hobari kontuan hartzen badira ere (hainbat intentsitatetan oinarrituak, baina hobaria dute), zer gertatzen da? Bada 27,08 €-ko kostu-prezio horrekin (prezio hori ez dago Udalaren esku, Espainiako Hitzarmen Zerbitzuaren esku baizik, eta, tamalez, garestienetakoa da), erabiltzaileak oso ongi ulertzen duela zerbitzuak kanpoan duen prezioa askoz merkeagoa dela, eta, horregatik, ez da erabiltzen. Orduan, horretan eta egikaritzean oinarrituta, aurreikuspena errealagoa izateko, aurreko ekitaldiekin alderatzeko eta, gainera, etorkizunari aurrea hartzeko, aurrekontuan etxeko laguntza-zerbitzurako 163.000 € sartzea planteatu dugu, eta batez ere pertsonen arretan oinarrituko gara. Izan ere, guk pertsonei laguntzen jarraituko dugu, eta etxeko garbiketarako laguntza-zerbitzu horrek, orduko kostuaren ondorioz, ez du inolako eskaririk.*

Como viene explicitado en los presupuestos el coste de la hora del servicio de ayuda domiciliaria son 27,08€ entonces ¿qué es lo que ocurre? que cuando se le invita se le presenta el servicio de limpieza del hogar al usuario a pesar de que en esa ordenanza fiscal nº 21 se contemplan una serie de bonificaciones en base a una serie de intensidades, es decir, en base a un número de horas semanales, aunque se les bonifica ¿qué es lo que ocurre? pues que con ese precio de costo de 27,08€ que no dependen del Ayuntamiento sino que tenemos la desgracia sino el Servicio de Convenio de España uno de los más caros, entonces el usuario comprende perfectamente que tiene un precio mucho más barato en el exterior y por eso no se usa, entonces en base a eso y a la ejecución lo que nosotros nos hemos planteado, efectivamente como dice Bildu para hacer la previsión más real y comparando con ejercicios anteriores y además anticipándonos a lo que pudiera pasar, hemos presupuestado en 163.000€ el servicio de ayuda domiciliaria centrado básicamente en la atención a las personas porque nosotros seguimos atendiendo a las personas y ese servicio de ayuda domiciliaria de limpieza del hogar no tiene ningún tipo de demanda como consecuencia del costo de la hora.

*% 45eko igoera ezarri dugu orduetan zein zenbatekoan. Bilduk aurkeztu diguna ehuneko hogeita hamar pasatxoko igoera da. Nolanahi ere, uste dut interesgarriagoa, errealagoa eta zuzenagoa dela gizarte-langileek, Gizarte Zerbitzuen arloko talde teknikoak egin duten aurreikuspena. Uste dut Bilduk proposatutakoa baino askoz zuzenagoa dela.*

Hemos incrementado tanto en horas como en importe un 45% lo que Bildu nos presenta es un incremento del treinta tantos por ciento, en cualquiera de los casos creo que es bastante más interesante y bastante más real y más acertada la previsión que han hecho, las trabajadoras sociales, el cuerpo técnico del Área de Servicio Sociales, me parece mucho más acertado que lo que propone Bildu.

*Beste zuzenketa batean, bi igoera-proposamen aurkeztu dizkigute. Bata gizarte-larrialdiko laguntzen partida 50.000 €-tan igotzeko proposamena da, eta bestea, berriz, premiak dituzten familientzako laguntzen partida berri bat sortzeko proposamena (eskolako jantokia, eskolako materiala, matrikulak eta abar ordaintzeko).*

Nos presentan otra enmienda que contiene dos propuestas de incremento. Una de incremento de la partida de ayudas de emergencia social en 50.000€ y luego crear una partida nueva de ayudas a familias necesitadas para el pago de comedores escolares, material escolar, matrículas, etc.

*Berriz diot, demagogiarako bidea ematen duen gaia da. Lehen zati honetan, gauzen funtzionamenduaren inguruko ezjakintasuna geratzen da agerian. Nolanahi ere, gai hau dagokion Batzordean azaldu zen.*

Insisto es un tema en el que se puede caer también en la demagogia. Con esta primera parte también se demuestra un cierto desconocimiento de cómo funcionan las cosas, no obstante esto se explicó en la Comisión correspondiente.

*Gizarte Larrialdietarako Laguntzen partida Eusko Jaurlaritzaren mende dago. Urtean behin, udalerri bakoitzari diru kopuru jakin bat esleitzeko agindu bat ematen da, sailburuak sinatua; hain zuzen ere, 2013. urteko aurrekontuetan, biribilduta, 125.000 €-ko zenbatekoarekin jasota dagoena. Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak sinatutako 2013ko martxoaren 27ko aginduak Ermuari zenbateko hori dagokiola dio, baina, horrez gain, aurtengo gastuen kontzeptu bakoitzari dagozkion gehieneko zenbatekoak jasotzen ditu. Izan ere, gastuak ez dira berdinak urte guztietan, eta, gainera, aurrekontu-kontsignazioa dago. Beraz, zentzugabekeria da esatea "50.000 €-ko igoera ezarriko dugu"; Udalak ez du erabakitzeko ahalmenik partida horretan, eta egin behar duen gauza bakarra ahalik eta hobekien gastatzea da. Eta nola egingo dugu? Agindu horietan, gastuen kontzeptu bakoitzari dagozkion gehieneko zenbatekoak adierazita daude. Guk ahalik eta pertsona gehienei lagundu nahi diegu, eta oso diru kopuru mugatua dugunez gero, gehieneko horiek murriztu egiten ditugu eta beste diru kopuru batzuk ematen ditugu, 125.000 € horiek jende gehiagorengana iritsi ahal izan daitezen. Eta, horretaz ari garela, alderdi hori ere azaldu zen Batzordean.*

Las Ayudas de Emergencia Social es una partida que depende del Gobierno Vasco. Todos los años se dicta una orden firmada por el Consejero en la que se adjudica a cada municipio una cantidad de dinero, que es precisamente la que está consignada en los presupuestos del año 2013, en números redondos 125.000€, efectivamente la orden del 27 de marzo de 2013 firmada por el Consejero de Empleo y Políticas Sociales señala que a Ermua le corresponde eso pero no solamente eso sino que se señalan las cantidades máximas correspondientes a cada uno de los conceptos de gastos contemplados para este año porque no todos los años se contemplan los mismos gastos y además eso, la consignación presupuestaria correspondiente, por lo tanto es un brindis al sol decir "vamos a incrementar 50.000€" sobre una partida en la que el Ayuntamiento no tiene ninguna capacidad de decisión y lo único que tiene que hacer es gastarlo de la mejor forma posible y ¿cómo lo hacemos? En esas órdenes se señalan los importes máximos para cada uno de los conceptos de gasto. Nosotros como lo que queremos es atender al mayor número de personas dada una cantidad muy limitada nosotros lo que hacemos es reducir esos máximos y damos otras cantidades para que con esos 125.000€ puedan disfrutar más personas y por cierto aspecto que también se explicó en la

Comisión correspondiente.

*Eta premiak dituzten familientzako aipatu duzun laguntzari dagokionez.*

Y con respecto a la ayuda a las familias necesitadas que también has mencionado.

*Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan, “oinarrizko premia” kontzeptua dago jasota. 4/2011 Dekretuan araututa dago, eta laguntzak arroparako, hezkuntza eta prestakuntzarako eta sistema publikoek estali gabeko osasun-laguntzarako erabili behar direla adierazten da, eta Udal honek, arestian adierazi dudanez 2011tik 2013ra % 833ko igoera izan duen partida horretan, kontuan hartu du oinarrizko premien alderdia, baina beste puntu bat gaineratu dugu. Izan ere, gizarte-langileen lanbide-irizpideari jarraitu diogu oinarrizko premiatzat hartu behar diren alderdiak finkatzeko garaian. Eta eskola-materialari dagokionez, adierazi beharra dago bi programa-ildo ditugula: alde batetik, ikastetxe publiko guztiak hartzen dituen liburu solidarioa, eta, bestetik, Gurutze Gorriaren eskola-laguntzaren kita (zehazki, eskolako motxila bat, errotuladore-kaxa bat, 6 arkatz beltz, erregela bat, borragoma bat, marrazteko blok bat, kolore-kaxa bat, pintura-kaxa bat, zorrozkailua eta ordezko orriak). Joan den urtearen amaieran, Ermuko Udalak horrelako 114 lote erosi zituen eta banatu egin ziren, jostailuen kanpainaren aldi berean. Hortaz, berriz diot, zalantzan jarri ezin den gaitasuna eta ahalmen teknikoa erakutsi duten teknikariek erabili behar ditugun diru kopuruak horiek direla finkatzen dutenean, egin behar duguna egiten dugu.*

En las AES hay un concepto que se llama “necesidades primarias” y eso está regulado en el Decreto 4/2011, dice: que se dedica a vestido, educación y formación, atención sanitaria no cubierta por los diferentes sistemas públicos; pero este Ayuntamiento se ha dotado en esa partida que he comentado antes que ha crecido un 833% del 2013 al 2011, también contemplamos el tema de necesidades primarias pero añadimos un punto más porque además dejamos que a criterio profesional de las trabajadoras sociales determinen aquéllas otras cuestiones que pueden ser consideradas y que deben ser consideradas como necesidades primarias; y cuándo se habla de materia escolar, decir que tenemos dos líneas de programas; por un lado, libro solidario que afecta a todos los colegios públicos y luego tenemos el quit de apoyo escolar de la Cruz Roja que para mayor abundamiento consiste en una mochila escolar, caja de rotuladores, 6 lápices negros, una regla, una goma de borrar, un bloc de dibujo, una caja de colores, una caja de pinturas, sacapuntas y recambio de hojas; a finales del año pasado el Ayuntamiento de Ermua compró 114 lotes de éstos y eso se repartió a la vez que la campaña de juguetes con lo cual insisto, cuándo el persona técnico del Área que tiene una capacidad y una solvencia técnica fuera de toda duda determina que estas son las cantidades que tenemos que poner, hacemos lo que tenemos que hacer.

*Azkenik, “Gizarteratzeko Udal Planerako partida 75.000 €-tan igotzea proposatzen da”. Berriz diot, aurrekontuak irakurtzen baditugu, bi partida daudela ikusiko dugu: 50.000 € bazterkeria-arriskuan dauden familiei laguntzeko Plan Integralerako dira; hainbat batzordetan eta hainbat kontseilutan azaldu denez (eta adierazi beharra dago aldizka biltzen garela horietan, eta oso jende gutxi joaten dela, baina ez dut arazorik berriz errepikatzeko), 50.000 € horiei bi erabilera eman zaie nagusiki: alde batetik, Udalak aholkularitzen eta gestorien bitartekotza guztiak ordaintzen dizkie finantza-erakundeekin negoziatzeko profesionalen laguntza behar duten pertsona guztiei, eta, bestetik, etxebizitzen alokairuari lotutako bitartekotza-zerbitzua ordaintzen du (jabeei alokairu-kuotak kobratuko dituztela eta, horrez gain, etxebizitza behar bezala kontserbatuko dela bermatzeko). Puntu honetan, datu zehatzetara iritsi nahi nuen benetan, demagogiarik gabe. Egia esan, aurreko ekitaldian 62.000 € jarri genituen lanaren aurreko jardueretarako, eta aurten, berriz, 31.000 €, baina kontuen likidazio-egoera ikusi eta aztertu behar da, eta adierazi beharra dago aitortuta genituen obligazioak 24.400 €-ra baino iristen ez zirela. Izan ere, gizarte-zailtasun eta gizarte-gabezia kognitibo instrumentalak dituzten eta, beraz, prestakuntza- eta lan-programetan parte hartzeko oraindik prestatuta ez dauden pertsonei zuzendutako jarduerei lotutako obligazioak dira. Garapen pertsonala eta gizarteratzea sustatzeko gune bat sortzea da helburua.*

Por último cuando se dice “se propone incrementar la partida de Plan Municipal de Inclusión Social” en 75.000€. Insisto en si nos leemos los presupuestos hay dos partidas que lo componen: 50.000€ para el Plan Integral de ayudas a familias en riesgo de exclusión y eso se dedica como se ha explicado en distintas comisiones también, y en distintos consejos que nos reunimos periódicamente donde las asistencia son las que son y hay falta de asistencia que son las que son, pero no me importa volver a repetirlo. Esos 50.000€ se destinan fundamentalmente a dos cosas: el Ayuntamiento paga todas las intermediaciones de asesorías y gestorías para todas aquellas personas que necesitan un acompañamiento y un apoyo profesional a la hora de negociar con sus entidades financieras y para el servicio de intermediación de alquiler de viviendas para dar garantía de cobro de las cuotas de alquiler a la propiedad y además para garantizarles el estado de conservación de su propiedad y aquí efectivamente y me hubiera gustado haber llegado al detalle de verdad, sin punto de demagogia, efectivamente este año nosotros hemos dotado 31.000€ para actividades prelaborales frente a los 62.600€ del ejercicio anterior pero entonces como lo que hay que hacer es ver y analizar el estado de liquidación de las cuentas pues resulta que solamente teníamos obligaciones reconocidas por 24.400€ por qué pues consiste en conjunto de actividades destinadas a personas que presenten dificultades y carencias sociales cognitivas instrumentales y por lo tanto que no estén preparadas todavía para participar en programas formativo-laboral. Se trata de crear un espacio para potenciar el desarrollo en la inclusión personal y social.

*Eta zer gertatzen da? Joan den urteko urtarrilaren 1etik aurrera, Ermuko Udalak, Euskadiko gainerako udalek bezalaxe, ez du diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzen, eta gizarteratze-ibilbide pertsonalizatuen ezarpena diru-sarrerak*

¿Y qué es lo que ocurre? Como desde el 1 de enero del año pasado el Ayuntamiento de Ermua como el resto de los Ayuntamientos de Euskadi ya no gestionan la renta de garantía de ingresos y como está inherente a la renta de garantía de ingresos está el

*bermatzeko errentari atxikita dagoenez eta jarduera horiek ibilbide horiei zuzenean lotuta daudenez gero, zer gertatzen zen? Kontrola guk eramaten genuenean, erabiltzaileek diru-sarrerak bermatzeko errentari nolabaiteko nahitaezkotasun-maila bat zegokiola ulertzen zuten, eta zer gertatu da aurten? Bada, horixe: guk kudeatzen ez dugunez gero, ibilbidearekiko nahitaezkotasun edo lotura hori galdu egin da, eta honako datu honetan islatuta geratu da hori: Garaipen programa 2012an eta 2013an egindako jardueretako bat izan zen, eta 22 pertsonak hasi eta 15ek amaitu zuten; 2011tik 2012ra bitarte, berriz, 30 pertsona inguru ziren. Horregatik egin da murrizketa".*

*Totorika jaunak honako hau adierazi du: "bai, aurrekontua aurkeztu nuenean azaldu banuen ere, berriz adierazi nahi dut nire ustez aurrekontua ez dela ongi ezagutzen. Eta aurrekontu bat zer den benetan ulertu nahi badugu, nondik gatozen eta non gauden jakin behar dugu. Gauzak ez dira kasualitatez gertatzen, prozesu batzuen ondorioz baizik, eta Ermuko garapena ulertaraztearen helburua ez zen alkateak edo gobernu-taldeak harrotasuna erakustea, etapa bat gainditu dugula ulertzea baizik. Etapa horretan, Ermuko Udalaren zeregin nagusia hirigintza-garapenari eta plazak, gune publikoak, kirol-azpiegiturak, kultura-azpiegiturak eta abar lortzeko aukerari lotuta egon zen, baina hori guztia neurri handi batean lortu denez gero, Ermuak gaur egin dituen erronkak bestelakoak dira. Azaldu nahi nuen, halaber, ez dela kasualitatea finantza-egoera oso ona izatea. Bilduk kontrakoa badio ere. Horren arrazoia azaldu nahi nuen, ez baita kasualitatea, urte askotan izan dugun asmo handiaren eta kudeaketa duinaren emaitza baizik. Gizarte-emaitzei dagokienez, Ermuko espazio fisikoa*

establecimiento de itinerarios de inclusión personalizados estas actividades estaban vinculadas directamente a estos itinerarios y qué es lo que ocurría? pues cuando llevábamos el control nosotros las personas usuarias entendían un cierto grado de obligatoriedad consustancial a la renta de garantía de ingresos, qué es lo que ha ocurrido el año pasado? pues como no lo gestionamos nosotros ese grado de obligatoriedad o de vinculación al itinerario se ha perdido y esto se plasma en dos datos, el programa Garaipen, una de las actividades estas del año 2012 y 2013 que empezaron 22 personas acabaron 15 mientras que, del 2011 al 2012 estaba entorno a las 30 personas por eso se ha disminuido.

El Sr. Totorika manifiesta que, sí quería volver a explicar que aunque yo lo hice cuando realicé la presentación del presupuesto que me parecía que el presupuesto es un gran desconocido y que por lo tanto si queríamos de verdad entender lo que es un presupuesto, requería saber de dónde venimos y dónde estamos. Las cosas no son por casualidad, las cosas son porque ha habido unos procesos y entender lo que era el desarrollo de Ermua no era para que este Alcalde o el equipo de gobierno sacara pecho sino para entender hemos superado, a mi entender, una etapa en la que la tarea casi principal del Ayuntamiento de Ermua estaba muy enfocada al desarrollo urbanístico, a conseguir plazas, espacios públicos, infraestructuras deportivas, culturales, etc. pero que buena parte de eso se ha conseguido ya y que por lo tanto los retos que tiene ahora Ermua son otros y teníamos que explicar también que la situación financiera tampoco es una casualidad que sea muy buena ya que Bildu dice justo lo contrario y teníamos que explicar el por qué, porque tampoco es ninguna casualidad es resultado de la ambición y de la gestión muy digna

*eraldatu dugu, eta ikuspuntu ekonomikotik ere emaitza batzuk lortu ditugu.*

durante muchos años con unos resultados sociales en transformación del espacio físico de Ermua de conseguir una serie de resultados también desde el punto de vista de económico.

*Hortaz, ez zen asmoa harrotasuna erakustea. Ez gaude hauteskundeetatik hiru edo sei hilabetera. Benetan hitz egin nahi badugu, gure zorrak eta gure ondareak izan duten bilakaeraren eta Ermuko Udalaren kudeaketak izan dituen emaitzen ikuspuntutik azken hamabost urteetan zer gertatu zaigun eta zein une historikotan gauden ikusi behar da, horretaz hitz egin behar baitugu.*

No era por lo tanto una de sacar pecho, no estamos a seis meses de las elecciones ni a tres sino que si tenemos que hablar en serio y hablar en serio significa ver qué nos ha pasado en los últimos quince años desde el punto de vista de la evolución de nuestra deuda, de la evolución de nuestro patrimonio, de los resultados de gestión del Ayuntamiento de Ermua y de en qué momento histórico nos encontramos porque tenemos hablar de eso.

*EAJren kasuan, esan nahi dut pozten nauela konparatzeak, horixe izan baita hein handi batean eta urte askotan Udalaren lanaren zati handi bat. Eta pozten nau aurrekontuarekin bat egitea, zati handi batean bat egiteko aukera ematen duela erakusten baita.*

Respecto al PNV quería decir que, me alegro que comparemos porque así ha sido en buena medida durante muchos años una parte muy importante del trabajo del Ayuntamiento y que además en este presupuesto comparta porque es así que buena parte puede ser razonablemente compartido.

*Ahalegin bat egiteko logika berarekin, ikusi genuen Eusko Alderdi Jeltzaleak planteatu zuen proposamen bat zentzuzkoa zela. Izan ere, OHZren bidezko diru-sarreren aurreikuspena handitu zitekeela planteatu zen, eta planteamendu zuzena zen; guk ontzat eman dugu, eta doako TAOaren aldeko proposamen bat egin dugu. Aurki izango dugu horren berri, Udalbatzarrean eztabaidatzen ari baita. Gero aipatuko dugu Emuko erdialdean komeni dela txandakako aparkaleku bat, saltokietarako, ostalaritza-establezimenduetarako eta banku- eta notario-zerbitzuetarako sarbideak hobetzeko. Horregatik erabili nahi genuen zati bat parkimetroetarako. Bestalde, enpresekiko ekintzailetza bultzatzeko zereginean dihardun Izarra Fundaziorako zati bat bideratzea, gaur egungo egoera kontuan hartuta, erabat zentzuzkoa zela iruditu zitzaigun.*

Nosotros con la misma lógica de intentar hacer una esfuerzo veíamos que una de las propuestas que se planteaba por parte del Partido Nacionalista era sensata porque es cierto el planteamiento que se hizo de que se podía incrementar la previsión de ingresos por el tema del IBI y la hemos dado por buena que hemos hecho una propuesta de que se destine al tema de la OTA gratuita que tenemos ocasión de conocer próximamente porque se está debatiendo en el Pleno del Ayuntamiento y tendremos ocasión de hablar de que en el centro de Ermua es conveniente un aparcamiento rotatorio para mejorar el acceso a comercio, hostelería, servicios bancarios, notaria, etc. ese era el motivo de destinar a la propuesta parte de ello a parquímetros y desde luego destinar una parte a Izarra que está sobre todo en el tema de impulsar el emprendimiento con empresas creíamos que a la altura del momento en el que estamos tenía mucho sentido.

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

*Bestalde, ez gentozen bat hainbat alderditan. Adibidez, EAJk gutxitzeko planteatu zituen funtsen jatorrian. 600.000 €-tik gorako murrizketa planteatu zen soldatetan, langileen kapituluan, eta egia da dirua sobera geratzen zaigula urtero, behar bezala, baina sobera genituen 600.000 € horiek joan den urtean funtzionarioen aparteko ordainsaria ordaindu ez zelako geratu ziren, eta, nik dakidala, aurten ordaindu egingo da. Ordaintzen bada, aparteko ordainsariak 300.000 € baino gehiago dira, eta, beraz, ezin dugu ontzat hartu hori, aparteko ordainsariak edo amatasun- eta gaixotasun-bajetarako edota bestelako zirkunstantzietarako 60 eta 80.000 € horiek eta beste partida txiki batzuk ordaindu gabe geratuko bailirateke. Beraz, eta urtero soberakinak baditugu ere, langileen kapituluan zein gainerako partidetan (izan ere, euro bat faltan izan ordez euro bat sobera izatea bilatu behar dugu beti) ezin genuen ontzat hartu gutxitze hori, aurten, aurrekontua oso mugatua izanik, murrizketa handiak egin beharko baikenituzke soldatetan eta beste ordezkapen batzuetan.*

No compartíamos, por otro lado, varias cosas. Una, el de dónde procedían los fondos que el PNV planteaba el que se minoraran. Se planteaba una reducción de algo más de 600.000€ en salarios, en el capítulo de personal, y es verdad que todos los años nos suele sobrar dinero, como debe ser, pero los 600.000€ que nos sobraban eran porque por ejemplo el año pasado la paga extra de los funcionarios no se pagó y que yo sepa este año en principio se va a pagar y si se va a pagar más de 300.000€ son la paga extra y por lo tanto no podemos dar por bueno eso porque significaría automáticamente impedir el pago de la paga extra o los 60 y 80.000€ por bajas de maternidad, enfermedad o circunstancias que se pueden producir y otra serie de pequeñas partidas, por lo tanto, siendo cierto que se producen unos excedentes anuales, siempre en el capítulo de personal y en el resto de partidas, porque el criterio tiene que ser el que nos sobre un euro en vez de que nos falte un euro, no podíamos dar por bueno esa minoración porque sino en el caso concreto de este año que está muy mirado el presupuesto tendríamos que hacer recortes importantes de salarios y de otro tipo de sustituciones.

*Eta lorezaintzari eta garbiketari dagokionez, bat gatoz, jakina, hobetzearen beharrarekin, baina guk aspalditik pentsatu izan dugu brigada txiki bat izateak arazo bat sortzen duela urtero, udaberria iristen denean jendea behar izaten baitugu beti. Hala ere, aukera ona izaten da langabe batzuek 3 edo 6 hilabetetan parkeak eta lorategiak garbitzen, kale-argiak edo eserlekuak pintatzen edota bestelako jarduerak egiten jardun dezaten. Horrela, beraz, ez da kasualitatea Ermuko brigada txikia izatea. Era horretan, helburu bikoitza lortu nahi dugu: alde batetik, ahalik eta kosturik txikiena izatea, eta, bestetik, jarduera horien bidez enplegua sortzen*

Y en el tema de jardinería y limpieza no podemos más que compartir la conveniencia de que se mejore pero nosotros llevamos mucho tiempo pensando que tener una brigada pequeña genera un problema constante todos los años porque nos suele llegar la primavera y andamos pillados de gente pero se convierte en una oportunidad para que haya desempleados para que durante 3 o 6 meses estén limpiando parques, jardines o estén pintando farolas, bancos o haciendo una serie de actividad, por lo tanto, no es casualidad que la brigada de Ermua sea pequeña y que por lo tanto intentemos cumplir un doble objetivo que, es por una parte, tener el mínimo de coste y por otra parte, intentar

*saiatzea. Osterantzean, Udalak nekez eskain dezake enplegua esparru guztietan.*

generar empleo a través de este tipo de actividades porque sino difícilmente en todos los campos se puede ofrecer empleo desde el Ayuntamiento.

*Bilduren jarrerari dagokionez, esan behar dut harrigarria dela benetan. Niri iruditzen zait beste liburu bat irakurri duzuela, esan dituzuen gauzak ez baitatoz bat errealitatearekin arlo gehiegitan, batez ere egiten duzuen analisian. Izan ere, esan duzue egoera kritiko bat bizi dugula eta porrota hurbil dugula, eta termino horiek zuek erabili dituzue, bai orain, bai aurkeztu duzuen zuzenketan, eta ez dute inolako zerikusirik Ermuko Udalaren errealitatearekin.*

Respecto a la posición de Bildu, decir que es realmente sorprende. A mí me da la impresión de que os habéis leído otro libro porque las afirmaciones que se hacen no coinciden con la realidad en demasiados campos sobre todo en el análisis que hacéis en claves de decir que vivimos una situación crítica, próxima a la quiebra, a la bancarrota que son términos que en parte habéis utilizado ahora y que habéis utilizado en vuestra enmienda y que no tienen nada ver con la realidad del Ayuntamiento de Ermua, nada.

*Ermuko Udala hogeita hamahiru eguneko epearekin ordaintzen die hornitzaileei. Udalen artean, ordaintzen lehenetakoak izango gara ziurrenik. Aurten, joan den urtean eta aurrekoan bezalaxe, superabita izan dugu aurrekontuan eta aurrekontu-likidazioetan. Izan ere, gauza bat da aurrekontua egitea, baina, urtearen amaieran, baliteke diru-sarrerak txikiagoak izatea, zuek diozuen bezala, jakina, eta guk kontuan hartzen dugu hori urtero. Orain arte, superabita izan dugu urtero, hau da, ez dugu aurreikuspenik egiten oinarririk gabe. Diru-sarreren aurreikuspenetan superabita izaten dugu urtero, eta aurten ere bai, hau da, OHZren gaian ere adierazi dugunez, pentsatutakoa eta aurrekontuan jasotakoa baino zertxobait gehiago biltzen dugu beti. Zergatik? Aurreikuspen zabalak egiten ditugulako, eta diru-sarreren aurreikuspenak bete egin dira beti, orain arte.*

El Ayuntamiento de Ermua está pagando a treinta tres días a los proveedores. Probablemente somos de los Ayuntamientos que pagamos más rápido. Nuestro superávit en el presupuesto de este año es una realidad como en el del año anterior y en el anterior, nuestras liquidaciones presupuestarias también, porque una cosa es hacer el presupuesto pero luego al final del año como habláis de que igual bajan los ingresos, naturalmente, es que eso lo contemplamos todos los años y hasta la fecha es que todos los años damos superávit, es decir, no hacemos previsiones sin fundamento. Las de ingreso todos los años y este año también dan superávit, es decir, recaudamos siempre, como también se ha comentado el tema del IBI, algo más de lo que pensamos y de lo que ponemos en el presupuesto, por qué? porque hacemos unas previsiones con amplitud y siempre las previsiones de ingresos se cumplen, hasta la fecha.

*Maileguei dagokienez, gauza bera. Urtea amaitzen denean, Ermuko Udalaren mailegu biziak 1.100.000 € eskas izango dira, eta bi gauza desberdin nahasten dira, ezjakintasunaren ondorioz ziurrenik (ez dut asmo txarra dagoenik pentsatu nahi), baina*

Respecto al tema de préstamos, exactamente lo mismo. Los préstamos vivos del Ayuntamiento de Ermua cuando acabe este año van a ser de 1.100.000€, no llega y se mezcla, supongo desde el desconocimiento y no quiero suponer la mala

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

*nahasi egiten dira. Izan ere, Udalaren maileguak Udalaren baliabideekin ordaintzen dira, aurrekontu honekin, baina Proimersa eta Promosaren maileguak, duela hogeita bi urte sortu zirenetik, Proimersa eta Promosaren kontuekin ordaintzen dira, eta proportzioan oraingoak bezain arrisku-maila eta kreditu-maila handiak izan ditugu, ia etengabe. Nik ez dakit zer gertatzen ari den gizarte honetan. Beharbada, krisiak eragindako zirrararen ondorioz, izu-sentsazioa dugu kreditu bat eskatzeko garaian. Ez dago ganorazko proiekturik, ez dago enpresarik funtsak bi jatorritatik lortzen ez dituenik (enpresaren kapitaletik eta kanpoan eskatzen diren kredituetatik, hain zuzen ere). Ez dago beste modurik bizitzan aurrera egiteko. Kredituak izatea normala da, kredituak izatea ona da eta komenigarria da, betiere ongi planteatzen badira, eta, orain arte, Proimersak eta Promosak ongi planteatu dituzte. Beraz, kreditua izatea lorpena dela esan liteke. Guk kredituak ditugu; adibidez, BBK-k krisialdiaren hasieran maileguan emandako 9 milioi euroko kreditua dugu. 9 milioi euroko mailegua eman ziguten krisialdiaren hasieran, eta gizarte honen kaudimenaren, proiektuen seriotasunaren eta gauzak ongi egin izanaren froga garbia da gaur egungo egoeran horrelako kreditu bat lortzea. Halaber, beste kreditu batzuk ditugu Industria Ministerioarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailarekin, Euriborraren arabera eta epe luzera. Eta kasu horietan ere, kaudimena eta seriotasuna geratu dira agerian, eta planteatzen diren helburuak laguntza emateko modukoak direla ikusi da, erakunde publikoak eta finantza-erakundeak laguntzen ari baitira. Beraz, nik ez dakit kreditu-maila handia dugula esatea eta izutu nahi izatea ezjakintasunaren ondorioa den ala ez, baina, orain arte, kreditu guztiak ordaindu ditugu, eta guztiak ordaintzen*

fe, pero se mezclan dos cosas que son distintas porque los préstamos del Ayuntamiento se pagan con el recurso del Ayuntamiento, con este presupuesto pero los préstamos de Proimersa y Promosa desde hace veintidós años que existen, se pagan desde las cuentas de Proimersa y Promosa y hemos tenido niveles de riesgo y niveles de crédito tan importantes como los que tenemos ahora proporcionalmente, prácticamente de forma continua, yo no sé qué nos está pasando como sociedad, supongo que el susto de la crisis y ahora estamos llegamos a una sensación de pánico respecto a pedir un crédito; no hay ni un proyecto serio no hay ninguna empresa, ninguna que tenga dos partes en el origen de sus fondos, una el capital de la empresa y dos los créditos que se piden fuera. No existe otra forma de funcionar en la vida, tener créditos en normal, tener créditos es bueno y deseable si se plantean bien y hasta la fecha Proimersa y Promosa lo están planteando bien; por lo tanto, haber si ahora el logro va a ser tener crédito, nosotros tenemos créditos, un crédito de 9 millones de euros prestamos por la BBK en el comienzo de la crisis, nos han prestado 9 millones de euros en el comienzo de la crisis y eso conseguir ese tipo de créditos con la que está cayendo es una prueba brutal de solvencia de esa sociedad de seriedad en los proyectos y de que estamos haciendo cosas dignas y tenemos otros créditos del Ministerio de Industria y del Gobierno Vasco del Departamento de Industria a Euribor, a largo plazo y sin otra prueba de solvencia de seriedad y de que los objetivos que se plantean son acompañables porque lo están acompañando las instituciones públicas y las instituciones financieras por lo tanto lo de que tenemos un nivel de créditos y pretender asustar yo no sé si el susto os procede la ignorancia, del desconocimiento pero hasta la fecha hemos pagado todos los créditos se van a seguir pagando los créditos y en cualquier

*jarraituko dugu. Nolanahi ere, nik ere gizartearen kaudimena hobetzea helburu garrantzitsua dela uste dut, eta kaudimenaz eta izuaz hitz egiten hasita, nik uste dut Ermuko Udalaren inbertsioaren erdia baliabide propioa izan daitekeela; hurbil gaudela esan dezakegu. Izan ere, 30 milioi euro ditugu inbertituta orain, eta, horietatik, 14 milioi inguru Ermuko herritarren dirua da, eta ez zait gaizki iruditzen % 50eko proportzio hori, eskema horrekin ganoraz jokatzen jarraituko dugulako, maila handiko bazkideak erakarriko ditugulako eta planteatutako helburuak betetzeko bidean aurrera egingo dugulako.*

*Joan den astean, Ministerioko industriako zuzendariorde nagusiarekin hitz egin nuen. I+Gari lotutako gai batez ari ginen, eta harrituta geratu nintzen esan zidanean horretarako bazen, 4 milioi euroko kreditu bat izan genezakeela, Euriborraren arabera. Horrela, beraz, ganoraz jokatzen jarraitzen dugu, kaudimena izaten jarraitzen dugu, eta horrexegatik kezkatuta naukazue; nik uste dut etxeko lanak egin behar dituzuela Ermuak duen mailara eta Ermuko Udalak duen mailara iristeko. Eta bi maila dira; Ermuak duen mailara iristeak esan nahi du erakargarri izaten jarraitzeko lanean jarraitzea, Ermuko enpresa indartsuek gero eta I+G gehiago duten eta gero eta enplegu teknologiko gehiago eskaintzen dituzten aldi berean guk dinamika horiek sendotzeko eta bultzatzeko lanean jarraitzea. Hori beharrezkoa da, lor daiteke, eta lortzen ari gara. "Jakintzaren eta berrikuntzaren gizartea" bizitzen ari gara, eta begiak ixten baditugu ere, hor egongo da. Horregatik, Ermuak logika horiei erantzun behar die, hau da, aukerak baliatzeko gai izan behar dugu. Izan ere, aukerak egon badaude, eta ezer egiten ez badugu, gainetik igaroko zaizkigu. Gure arriskurik handiena ezer ez egitea da. Aurrekontu hau Bilduk dioenaren osoko zuzenketa bat dela ere esan daiteke. Izan ere, asmo handia du, helburuak ditu eta seriotasun handia du, eta beldurra da,*

caso yo sí creo que mejorar la solvencia de la sociedad sí es un objetivo, ya que se habla de solvencia de miedo….yo creo que el Ayuntamiento de Ermua puede situarse en un nivel de inversiones en la que la mitad de la inversión sea recurso propio; estamos cerca de ello. De los 30 millones de euros que tenemos en este momento invertidos, 14 aproximadamente, son dinero de los vecinos de Ermua y no me parece mal esquema el ir al 50% porque con ese esquema seguimos siendo serios, captamos socios de nivel y seguimos avanzando en el cumplimiento de los objetivos de las ambiciones planteadas.

La semana pasada hablé con el Subdirector General de Industria del Ministerio y para un tema de I+D me quedé perplejo cuando me dijo que, si es para eso tenéis un crédito al Euribor si queréis de 4 millones de euros. Esto es lo que hay, es decir, seguimos siendo serios, seguimos siendo solventes y a mí me preocupa eso porque yo creo que tenéis que hacer los deberes para estar a la altura de Ermua y a la altura del Ayuntamiento de Ermua y son dos niveles porque estar a la altura de Ermua significa seguir peleando por ser atractivos por hacer posible que igual que las empresas potentes de Ermua cada vez tienen más I+D y cada vez tienen más empleo tecnológicos, nosotros reforcemos y apoyemos ese tipo de dinámicas y eso es necesario y es posible y lo estamos haciendo ya. El que nosotros cerremos los ojos a que estamos viviendo una cosa que la gente le llama "la sociedad del conocimiento, de la innovación" podemos cerrar los ojos pero eso está ahí, y Ermua tiene que responder a ese tipo de lógicas, es decir, tenemos que ser capaces de aprovecharnos porque hay oportunidades también y sino hacemos nada nos pasa por encima. El mayor riesgo que tenemos es no hacer nada. Literalmente este presupuesto es una enmienda a la totalidad de lo que dice Bildu porque este presupuesto tiene ambición, tienen objetivos y tiene mucha seriedad y los miedos son exactamente lo

*hain zuzen ere, Ermuak behar ez duena.*

*Ermuak enplegua, etorkizuna eta itxaropena behar du, eta aurrekontu honetan badago. Ez dugu uste funtsik ez duen beldurrean oinarritutako logikak onartu behar direnik, eta uste dut hori helarazten ari zaretela.*

*Bide horretan aurrera egiteko, Europako iparraldeko udalen ikuspegiei jarraitzen diegu; ez gara ezer asmatzen ari, Europako iparraldekoei ongi atera zaiena egiten ari gara. Ekintzaileen arloan, Europako iparraldetik ikasi dugu. Europako iparraldean, zuntz optikoa arrunta da; "ba al dut ura sukaldean?" galdetzearen antzekoa da. Jakina, ura duzu sukaldean, edo saneamendu-sareak, edo errepideak, edo aparkalekuak.*

*Enpresak erakartzeko aukerak erreala izan behar du. Lehentxeago esan dit Clementek Bermeoko enpresa bat (hodeietan gauzak egiten dituen horietakoa) Ermura etorriko dela, eta, hain zuzen ere, gune duin bat, ausartenentzako aukerak baliatzeko gune bat eskaintzen dugulako etorriko da. Izan ere, horren alde egiten ez badugu, ez dugu ezer baliatzerik izango.*

*Nik uste dut Ermuak horrelako erabakiak behar dituela, eta, arestian esan dudanez, Udalaren mailan egoteko Bilduk ahalegin bat egin behar du elementu zehatz batzuetan sartzeko. Zehatzak diot, baina ez dira hain zehatzak ere. Izan ere, proiektu errealak dira, gai horiek guztiak guztiz errealak dira, agian ulertezinak zenbaitentzat, ulertzen dut. Nik badakit kontatzen ari naizena ez dela erraza, baina etorkizunaren aldeko apustua da, eta egin dutenei ongi atera zaie. Ingurumena neurri*

contrario de lo que necesita Ermua.

Ermua necesita empleo, futuro y esperanza y en este presupuesto hay de todo eso bastante y no creemos que se deban aceptar este tipo de lógicas basadas en un miedo infundado que creo que es lo que nos estáis trasladando.

Estamos avanzando en ese camino siguiendo las visiones que tienen los Ayuntamientos del norte de Europa, no nos estamos inventando nada estamos reproduciendo lo que ya les ha ido bien a los del norte de Europa. En materia de emprendedores hemos aprendido del norte de Europa, la fibra óptica en el norte de Europa es una vulgaridad, es como decir, ¿tengo agua en el grifo? por supuesto que tienes agua en el grifo, o red de saneamiento o carreteras o aparcamientos.

La oportunidad para captar empresas tiene que ser algo real. Hace un momento me decía Clemente que tenemos una empresa de Bermeo que dice que va a venir a Ermua, de estas que hacen cosas en la nube y va a venir porque se está ofreciendo un espacio digno y un espacio dónde las oportunidades para los más atrevidos se pueden aprovechar y sino apostamos por eso no vamos a aprovechar nada.

Yo creo que Ermua requiere este tipo de decisiones y cuando decía que estar a la altura del Ayuntamiento requiere un esfuerzo por parte de Bildu entrando en algunos elementos que voy a calificar de detalle pero que no son tan de detalle hablar de proyectos reales con todos estos temas que son absolutamente reales quizás incomprensibles para algunos, lo entiendo, yo sé que lo que estoy contando no es fácil pero desde luego es una apuesta por el futuro que a los que les va bien lo están haciendo. Decir que tenemos

*handiagoan landu behar dela esan duzue, eta Ingurumen Plan bat badugu. Oraintxe bertan hasi gara berrikuspena egiten, baina badugu. Immigrazio Plan bat ere egin behar da. Eta lehen euskaraz aipatu dituzun, egunkarian esan dituzun eta aurkeztu duzuen osoko zuzenketan agertzen diren gaiei buruzko iritzia ematen ari naiz.*

que trabajar más el tema medioambiental, tenemos un Plan Medioambiental que, ahora mismo hemos iniciado la revisión pero ya lo tenemos, que hay que hacer un Plan de Inmigración porque estoy comentando varias cosas que en parte has mencionado en euskera, en parte has dicho en el periódico y en parte aparece en la enmienda presentada a la totalidad.

*Immigrazio-plana badugu, ingurumen-plana badugu, ez dakit zer neurriren bidezko garapena eta berrikuntza planteatu duzue, baina ezetz esan diozue Ermua.Cero proiektuari, hots, harrobiko proiektuari.*

Plan de inmigración lo tenemos, plan medioambiental tenemos, desarrollo e innovación que planteabais a través de no sé qué medidas pero decíais que no a Ermua.Cero, que es el proyecto de la cantera

*Harrobia txatarra baino ez da, eta aukera handia da inguruan bizi direnentzat. Txatarra hori kentzea aukera handia da Ermuarentzat, hainbat helburu lor baitaitezke (ingurumen-arlokoak, teknologikoak eta abar). Era berean, adinekoentzako edo gazteentzako alokairuko 500 apartamentu plantea daitezke horri esker. Eta leku horretan baino ezin da egin hori.*

La Cantera es una chatarra y es una enorme oportunidad para los que viven en la zona de la Cantera, quitar esa chatarra es una enorme oportunidad para Ermua porque se pueden conseguir varios objetivos medioambientales, tecnológicos, se pueden plantear 500 apartamentos en alquiler para personas mayores o para jóvenes, allí y solo allí prácticamente.

*Enplegua sustatu behar dugu.*

Tenemos que incentivar el empleo.

*Aste honetan, Urtiako azken urbanizazioa onartu dugu. Industria-lurzoruko lurzatiak eskuratzen ari gara, aukerak daudenerako.*

Esta semana hemos aprobado la última urbanización de Urtia. Estamos adquiriendo más parcelas de suelo industrial por si hay oportunidades.

*Zuntza sartu dugu Ermuko poligonoan, baita Mallabikoan eta Zaldibarkoan ere. Eta, horretaz ari garela, Bildukoek esan digute ea han ere egin daitekeen, nahi dutela. Orbearako bidean dagoen poligonoan ere bagaude.*

Hemos introducido la fibra en el polígono de Ermua y los de Mallabia y Zaldibar, por cierto de Bildu, nos han dicho que por favor si allí puede ser que, lo quieren y estamos también en el polígono que va hacia Orbea.

*Izarra Fundazioan, hilean behin biltzen gara, enplegu-aukerak aztertzeko.*

En la Fundación Izarra nos reunimos una vez al mes para ver las oportunidades de empleo.

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

*Ermuko Udalaren maila handia da, eta maila horretan egoteko eta zentzu handirik ez duen gauzarik ez esateko, ordu gehiagotan jardun behar da, eta lurrera etorri behar da. Izan ere, berriz diot, hitza hartu duzuenean iruditu zait ez zinetela Ermuko Udalaz eta planteatu ditugun helburuez ari, beste kontu batez baizik".*

El nivel del Ayuntamiento de Ermua es alto y para estar al nivel y no decir cosas que no tienen mucho sentido, hay que trabajar más horas y pisar un poco más de tierra porque repito a mí cuando habéis hecho la intervención me ha parecido que hablabais de otro libro no del Ayuntamiento de Ermua y de los objetivos que tenemos planteados.

*Caballero andreak honako hau adierazi du: "lehen txanda amaitu ondoren, berriz ere adierazi nahi dut zuhurrak izan nahi dugula gure jarrerarekin. Ez gara gaur jaioak, eta baliteke (guk aukera horretan pentsatu ere nahi ez izan arren) estrategia hutsa izatea denok, hau da, herritar guztiok aurrekontuetan parte hartzen hasteko planteamendua. Izan ere, kontuan hartu behar dugu hemendik gutxira hurbil samar izango ditugula udal-hauteskundeak, eta, jakina, oso ongi geratuko dela aurrekontuak parte-hartzean oinarrituta lantzeko eredu bat planteatzea.*

La Sra. Caballero manifiesta que, después de esta primera ronda voy a insistir en que desde el grupo Izquierda Unida queremos ser prudentes con nuestro posicionamiento porque tampoco nos hemos caído del guindo ayer y puede haber una remota posibilidad y esperamos que efectivamente ni siquiera sea remota sino que sea nula la posibilidad de que el planteamiento de que empecemos a participar todos, la ciudadanía, en los presupuestos pueda ser una estrategia, una estrategia de cara a que dentro de un cierto tiempo se acercan las elecciones municipales y quedará muy bien el que planteemos un modelo de trabajo de los presupuestos a nivel participativo.

*Badakit ez dela atsegina hau guztia itxurakeria izan daitekeela esatea, baina esan egin behar dut, oposizioan egin behar dudan lana esatea eta mahai gainean jartzea baita, ahaztu ez dezagun. Horrela, beraz, planteamenduak ez du hori izan behar, parte hartzean oinarritutako aurrekontuen benetako planteamendu bat baizik.*

Sé que no gusta que diga que igual todo esto puede parecer un intento de lavado de cara, pero es que lo tengo que decir porque mi labor como oposición es decirlo es ponerlo encima de la mesa para que no se nos pierda de vista; que sea un planteamiento de presupuestos participativos real y no esto que acabo de decir.

*Herritarrek 2013an egin ditugun aurrekontuetan parte hartzeko lehen fasean, gogo handiak genituen denok; Informazio Batzordera iritsi gara Bilduk eta EAJk aurkeztutako zuzenketekin (denok eskertzen dugu hori), eta, egia esan, Bilduko kide guztiak behar ditugu, batzordeetara joan zaitezten behar dugu,*

A la hora de participación en esta primera fase de participación ciudadana de los presupuestos que hemos hecho en el 2013 todos veníamos con muchas ganas, hemos llegado a la Comisión Informativa con las enmiendas de los grupos de Bildu y PNV que todos agradecemos y la verdad es que necesitamos la presencia de todos

*proposatzen den guztia eta ikuspuntu guztietatik interesatzen baitzait. Zenbaitetan, galderak egin eta gauzak argitu nahi nituzke, eta proposamen batzuekin benetan zer lortu nahi den jakin nahi dudanean, erabateko nahasmendua sentitzen dut, eta horrela hartu behar ditut erabakiak. Izan ere, proposamen batzuen edukia galdu egiten da solaskideak falta direlako.*

compañeros de Bildu, necesitamos la presencia de todos estéis en esas comisiones porque a mí que me interesa todo lo que se propone y desde todos los puntos de vista, quisiera preguntar y aclarar y a veces tengo que tomar decisiones perdida en la confusión más absoluta de qué es lo que se pretende realmente con algunas propuestas que se pierden en calidad por la falta de los interlocutores.

*Horrekin, sarritan esan dudana aldarrikatu nahi dut: ganora handiz eta hein handi batean nirearekin edo Ezker Batuarenarekin bat datorren diskurtso baten bidez agerian jarri duzuen krisi-egoeratik irten nahi badugu, askotan esan dut eta aspertu arte esaten jarraituko dut, denok batera irten beharko dugu; bestela, ez gara aterako. Berriz diot, ez dugu hain bereizketa handirik egin behar siglen artean; ekarpen guztiak dira baliagarriak, eta Ezker Batuak EAJren zein Bilduren ekarpenak jaso nahi ditu, gure gain hartzeko eta onartzeko modukoak baitira. Nahiago nuke zuzenketa horiek onartu izan balira, baina orain adierazi behar dut bat natorrela edukiarekin, baina ez natorrela bat formarekin. Izan ere, alde batetik etorri ez zinetelako, eta bestetik zuzenketa batean kopiatutako testu bat zegoelako, onartu behar dut galdu egin nintzela, eta ez nekien zer bozkatu behar zen. Horregatik, gaur atzera egin behar dut joan den egunean eman nituen boto batzuekin. Izan ere, une batean pentsatu nuen zuen zuzenketak zuek bertan egon gabe bozkatzen ari nintzela, eta, bat-batean, horren ordez beste gauza bat bozkatzen ari nintzela.*

Con esto quiero reivindicar lo que he dicho en muchas ocasiones, que de esta situación de crisis que habéis puesto encima de la mesa muy seriamente y a través de un discurso que yo también comparto en gran medida o IU lo compartimos en gran medida lo he dicho un montón de veces y lo seguiré diciendo hasta la saciedad o salimos todos juntos o no salimos; insisto en que no tenemos que hacer tantas diferencias de siglas sino que todas las aportaciones son válidas y IU recoge tanto las aportaciones de PNV como las de Bildu como perfectamente asumible y perfectamente aceptables. Hubiera querido que esas enmiendas se aprobaran pero ahora es cuando hago mención a que estoy de acuerdo con el fondo pero no con la forma porque de repente entre que faltasteis y se hizo un corta-pega de otra, yo al final tengo que reconocer como a veces entre nosotros decimos que me pierdo y ya no sé que voto y hoy tengo que rectificar algunos de los votos del día pasado porque realmente hubo un momento en que yo creía que estaba votando vuestras enmiendas sin estar vosotros delante y de repente con que no estaba votando esto sino otra cosa.

*Oso garrantzitsua da korrika eta presaka ez ibiltzea, eta denontzat diot. Ahalegin handia egin duzue partida batzuk kuantitatiboki aztertzen, ideia batzuk aurkeztu dituzue, eta denbora behar dugu ideia horiek lantzeko eta balioesteko. Nik, pertsonalki, forma horiek ez ditut atsegin, eta herritarren ahalik eta parte-hartzerik*

Es muy importante que lo hagamos no deprisa y corriendo y lo digo para todos sino basta que habéis hecho el esfuerzo de hacer el trabajo de analizar cuantitativamente algunas partidas y habéis presentado algunas ideas que estemos para trabajarlas y las valoremos con cierto tiempo. A mí personalmente esas formas no me gustan y

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

*handiena lortzeko ahalegin honekin egiten ari garen printzipio- eta asmo-deklarazio honen bidez denok lortu nahi dugun gardentasuna nolabait ere desagertu egiten dela dirudi.*

parece que elimina parte de la transparencia que intencionadamente queremos todos conseguir a través de esta declaración de principios y de intenciones que estamos haciendo con el intento de conseguir la mayor participación ciudadana posible.

*Herritarren parte-hartzeak benetakoa izan behar du, eta ikusirik era honetan jendea aspertu baino ez dugula egiten eta betiko gauzak egiten ditugula (baina bilkura-aretoa baino toki handiago batean), beharbada lehen deialdiaren eta bigarren deialdiaren emaitzaren balioespen bat egin beharko genuke. Jendeak, lehen aldian entzun ondoren (eta gaurkoan entzun ondoren ere bai, ziurrenik), inplikatzen ez dugula esaten digu, eta jendeak inplikatu egin nahi du. Eta orain hemen zaudetenoi esan nahi dizuet lan izugarria geratzen zaigula egiteko. Izan ere, Ikerrek arestian adierazi duenez, aurrekontuen edukia astuna da, eta ganoraz antolatu beharko dugu aurrekontu horiek herritarrek benetan eskatzen duten bezala lantzeko.*

Esta participación ciudadana que sea auténtica y visto que de esta manera parece que lo único que hacemos es aburrir al personal y hacer más de lo mismo pero en un entorno mayor que lo que es el salón de plenos, quizás tengamos que hacer una valoración del resultado de la primera convocatoria y la segunda y resulta que la gente lo que nos está pidiendo después de escucharnos en esa primera ocasión y seguro después de escucharnos en ésta es que no les involucremos y la gente quiere involucrarse y ojo y ahora que dirijo a los que estáis aquí el trabajo que nos queda por delante es grandísimo porque como bien decía Iker el contenido de los presupuestos es árido y nos tendremos que organizar de una manera muy consistente para poder trabajarlos como realmente la ciudadanía está pidiendo.

*Herritarrek parte hartu nahi dute, iritzia eman nahi dute, fiskalizatu egin nahi dute, kritika konstruktiboa egin nahi dute, eta beti konstruktiboa izatea espero dut. Kritika destruktiboa oso erraza da, eta denok, etxeko egongelan, ordenagailuaren aurrean, kalean, mundua konpontzen dugu, Udala konpontzen dugu eta herria konpontzen dugu, eta bada garaia fase hori utzi eta lanean hasteko.*

La ciudadanía quiere participar, quiere opinar, quiere fiscalizar, quiere criticar de una manera constructiva, espero siempre, porque la crítica destructiva es muy fácil y todos en el salón de casa delante del ordenador, en la calle, arreglamos el mundo, arreglamos el Ayuntamiento, arreglamos el pueblo y hay que pasar de esa fase a ponernos a trabajar.

*Ezker Batuaren jarrera nolabait ere 2013ko aurrekontuen aldekoa izan daitekeela diot, batez ere eta oroz gain sakratua den gauza bat dugulako, hots, Kontu-hartzailetzako langileek eman duten aurrekontu-egonkortasunari buruzko*

Desde Izquierda Unida cuándo digo que nuestra postura en cierta manera puede ser de apoyar los presupuestos del 2013 es porque contamos sobre todo y ante todo con algo que es sagrado que es la valoración del informe de estabilidad presupuestaria que nos

*txostenaren balioespena. Gastuaren egonkortasunari buruzko txostena Legeak dioen bezalakoa bada, gainerakoa, lehen txandan adierazi dudanez, ongi egina egongo da. Ongi dago kontuak ongi ateratzea, eta urtero berdinak badirudite ere, agian etxeko lanak ongi samar egiten ari garelako dira berdinak. Ez nuke eman nahi gobernu-taldeko kide baten irudia, oposizioko kide batena eman ordez; aurrekontu-egonkortasunari buruzko txostenaren balioespenean oinarritu nahi dut, besterik gabe, ikuspuntu positiboa aipatzeko, baina, jakina, oposizioko gainerako taldeekin neurri handiagoan inplikatu nahi dut. Izan ere, zuzenketa batzuk planteatu bezala onartu behar ziren, hasierako edukia guztiz eraldatu gabe. Niri ez zait gustatu hori, eta ez dut emango BILDUk eta EAJk aurkeztutako zuzenketen ezespenaren aldeko botorik.*

*Eta, azkenik, eta txanda honekin amaitzeko, hemendik, Aurrekontuen Udalbatzar honetatik esan nahi nuke espero dugula hain formatu itxiko azken Udalbatzarra izatea, eta hurrengoan gizarte-eragileek, ordezkariek, talde eragileetako herritarrek eta abarrek parte hartzea, Aurrekontuen hurrengo Udalbatzarra, 2014koa, guztiz desberdina izatea. Ekainetik aurrera lanean hasi behar dugu, eta Ezker Batuak herritarren parte-hartzerako zinegotzigoa sortzea proposatuko du berehala. Herritarren parte-hartzerako zinegotzigoa, hain zuzen ere parte-hartzean oinarritutako 2014ko aurrekontuak lantzeko. Zinegotzigo horretan, gobernu-taldeko ordezkariek ez ezik, oposizioko ordezkariek ere parte hartu beharko lukete. Denok egon behar dugu hor. Mozio moduan aurkeztuko dugu, egituratuta eta puntuak garbi, Udalean lantzeko eta parte-hartzean oinarritutako hurrengo aurrekontuetan aurrera egiteko lehen ekimen gisa planteatzeko, herritarrek, lau urtean behin boto-papera hautestontzian*

emite el personal de Intervención. Si ese informe de estabilidad del gasto es como la Ley marca que tiene que ser, el resto entendemos como decía en mi primera intervención, está bien hecho que las cuentas salen, aunque parezca que todos los años son iguales, igual son iguales porque estamos haciendo los deberes con cierta bondad. No quiero que parezca que pertenezco al equipo de gobierno en lugar de la oposición pero quiero simplemente basarme en esa valoración del informe de estabilidad presupuestaria para dar el punto de visto positivo pero por supuesto implicarme más con el resto de la oposición en el sentido de que ha habido enmiendas que tenían que haber sido aprobadas tal cual y no transformarlas en otro caso que inicialmente no eran. A mí eso no me ha gustado y no voy a dar mi voto a favor de la desestimación de las enmiendas presentadas tanto por BILDU como por EAJ/PNV.

Y por último y para cerrar esta intervención lo que sí quisiera decir desde aquí, desde este Pleno de Presupuestos que esperemos que sea el último de este formato así tan cerrado sino que sea de otra manera donde ya haya participación de agentes sociales, representantes, ciudadanos de grupos motores, etc., que el próximo Pleno de Presupuestos, el del 2014, sea radicalmente diferente. Nos tenemos que poner a trabajar ya a partir del mes de junio y nuestro grupo Izquierda Unida va a proponer desde ya que se cree una concejalía de participación ciudadana y una concejalía de participación ciudadana precisamente para trabajar los presupuestos participativos del 2014 donde intervengan no solamente representantes del grupo de gobierno sino representantes de la oposición. Ahí sí que tenemos que estar todos. Lo presentaremos en forma de moción, estructurada, con los puntos claros para que los trabajemos en la Corporación y lo planteemos como la primera iniciativa para echar andar los próximos presupuestos participativos porque entendemos que los

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

*sartzeaz gain, kudeaketa publikoan esku hartu behar dutelakoan baikaude.*

vecinos y vecinas tienen que intervenir en la gestión pública más allá del mero hecho de introducir una papeleta en una urna cada cuatro años.

*Ezker Batuak herritarrentzat lan egin nahi du, jakina, baina, batez ere, herritarrekin lan egin nahi du, ziur baikaude parte-hartze handiago horrekin demokrazia hobea eta gardentasun handiagoa izango dugula eta Udal hau gurea dela sentituko dugula neurri handiagoan, eta espero dut onuragarria izatea denontzat, baina izerdiak ere bota beharko ditugu, aurrean dugun lana interesgarria eta sakona baita".*

Izquierda Unida quiere trabajar no para la ciudadanía, que sí, pero sobre todo con la ciudadanía con el convencimiento de que con esta mayor participación ganaremos en democracia ganaremos en transparencia y sentiremos que este Ayuntamiento es mucho más nuestro y espero que nos aporte gratificaciones pero también vamos a tener que sudar porque el trabajo es interesante y profundo el que tenemos por delante.

*Gisasola jaunak honako hau adierazi du: "Lehen esan duzu, Carlos, gure proposamena ongi iruditu zitzaizula, baina onartu duzu 110.000 € gehiago lor daitezkeela, beste erabilera bat eman diezu, eta gainerakoaz ez duzu ezer esan. Joan den urtean, 550.000 € geratu ziren gastatu gabe langile-gastuen barruan. Esan duzunez, 300.000 € aparteko ordainsaria ordaindu ez zelako geratu ziren. Oraindik beste 250.000 € geratzen zaizkigu, eta kopuru horri diru-sarrerak gehitzen badizkiogu (110.000 €), diru asko da, eta ez diguzu deirik edo gonbidapenik helarazi horri buruz eztabaidatzeko eta guk proposatu dugun erabileraz hitz egiteko. Eskailera mekanikoak egiteko 480.000 € bideratzea proposatu dugu. Nolanahi ere, daukagun erreferentzia bakarra beste herri batzuetan egin dena da. Agian hemen hirukoitza balio du eskailerak egiteak, edo agian erdia, eta egin litezke. Bitxia da, baina garai batean, Olañetako etxeak egin nahi zenituenean, esaten zenuen Ermuan garabiak ikustea positiboa izango zela, eraikuntza-sektoreko jendeak hor lan egitea eta sektore horretan dugun langabeziarekin Ermuko jendeak hor lan egin ahal izatea oso positiboa izango zela denontzat.*

El Sr. Gisasola manifiesta que, decías Carlos que nuestra propuesta te parecía bien sin embargo admites que se pueden ingresar 110.000€ más, les das otro uso y del resto no nos dices nada. 550.000€ es lo que se dejó de gastar el año pasado en gastos de personal, 300.000€ dices que provinieron de no pagar la paga extra, nos sigue quedando 250.000€ que sumados 110.000€ de ingresos estamos hablando de mucho dinero y no hemos recibido ninguna llamada por tu parte ni una invitación a que eso se pueda discutir y se pueda dar el uso que nosotros estamos proponiendo. Hemos propuesto 480.000€ para hacer unas escaleras mecánicas y que tampoco tenemos mucho más referente que lo que se ha podido hacer en otros pueblos, que igual aquí vale el triple o quizás valga la mitad y se podrían hacer; es curioso cuándo defendías que se podían hacer o que se hicieran las casas de Olañeta el que se vieran grúas en Ermua iba a ser algo positivo que el que hubiera personas de la construcción trabajando ahí que pudieran venir de Ermua donde hay mucho paro en ese sector sería muy positivo para todos, hacer unas escaleras mecánicas yo creo que es exactamente lo mismo con la diferencia de que esto es una cosa que no se ha preguntado pero en el Plan

*Eskailera mekaniko batzuk egitea nik uste dut gauza bera dela, baina desberdintasun batekin: kasu honetan, ez da galdetu, baina Hiri Antolamenduko Plan Nagusian inkesta bat egin zen, eta erantzun zutenen % 79k esan zuen ez zuela etxe gehiago nahi. Jendeak eskailera mekaniko gehiago nahi dituen jakiteko inkesta bat egiten badugu, ez dut uste % 79k ezetz esango duenik.*

General de Ordenación Urbana se hizo una encuesta y el 79% de las personas que respondieron dijeron que no querían más casas, a ver si hacemos una encuesta para ver si las personas quieren mas escaleras mecánicas y a ver si el 79% dice que no.

*Bestalde, Promosak eta Proimersak zor dutena eta zor ez dutena aipatu duzu. Egia da, zuk diozuna zor dute, baina Ermuko Udalak 10 milioi euroko abala jarri du Promosa sozietatearentzat, eta ordaintzen ez badu, badakigu zein izango diren ondorioak.*

Hay otra cosa de las que has dicho también en relación a lo que debe y no debe Promosa, Proimera, es cierto, deben lo que tú dices pero el Ayuntamiento de Ermua tiene un aval de 10 millones de euros a la sociedad Promosa de si no se paga las consecuencias todos las tenemos claras.

*Aipatu dituzu, halaber, likidazioak, eta “onak“ direla esan duzu. Likidazio bat ez da ona dirua sobera geratzen delako. Dirua sobera geratu bada, aukera bat galdu da. Guk uste dugu kudeaketa-akatsa dela, herrira itzul daitekeen dirua baitago, eta Ermuan premia ugari daude bete gabe. Gure ustez, aurrekontuak ez dira ez onak, ez txarrak, likidazioak ez dira ez onak, ez txarrak, zegoenaren emaitza baizik, zenbat gastatu den eta zenbat gauza geratu diren egin gabe gastatu ez izanagatik.*

Otra que has mencionado sobre las liquidaciones y las denominas “buenas”. Una liquidación no es buena porque sobre dinero, si sobra dinero es una oportunidad que se ha perdido nosotros entendemos que es un error en la gestión porque hay dinero que se puede revertir al pueblo y al final en un pueblo como Ermua con muchas necesidades que no se cubren. Para nosotros los presupuestos no son ni buenos ni malos y las liquidaciones no son ni buenas ni malas, son el resultado de lo que había, cuánto se ha gastado y cuántas cosas se dejan de hacer con lo que no se gasta.

*Esan duzu gauzak ongi egin behar direla, gastuetan zuhur eta diru-sarreretan asmo handiegirik gabe jokatu behar dela. Azken bost urteotan, aurreikusi baino 1.180.000 € gehiago lortu dira zuzeneko zergekin, 6.200.000 € gastatu gabe geratu dira, eta 8.500.000 €-ko soberakina dago. Jakina, gauza batengatik eta bestearengatik, ezin dugu diru hori gastatu, eta aukera dugunean, ezin izango dugu edonon gastatu. Guretzat hori ez da aurrekontu ona, ez da likidazio ona; galdutako 8.500.000 aukera dira, eta nik, neronen eta nire alderdiaren izenean, esan nahi dut diru horrekin bete litezkeen premia*

Hablabas de hacerlo bien de ser prudente en los gastos ser no demasiado ambiciosos en los ingresos. En los últimos cinco años solamente en Impuestos Directos se ha ingreso 1.180.000€ más que lo que se previó, en los gastos se ha dejado de gastar 6.200.000€ y hay un remanente de 8.500.000€ claro por las circunstancias que sean no podemos gastar y cuando se pueda no se va a poder gastar en cualquier cosa para nosotros eso no es ni un buen presupuesto ni una buena liquidación, son 8.500.000 de oportunidades perdidas y yo personalmente y en nombre de mi partido creo que sigue habiendo muchas necesidades

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

*handiak ditugula herri honetan oraindik.*

en este pueblo que se podrían cubrir con ese dinero.

*Gure zuzenketak edo emendakinak azalduko ditut orain.*

Seguidamente, intentaré exponer nuestras enmiendas.

*Gure zuzenketak ongizateari laguntzeko dira batez ere, horretan diru gehiago ipintzeko.*

Nuestras enmiendas se refieren principalmente a la ayuda al bienestar, en el sentido de destinar a ello una mayor cantidad.

*Gure aurrekontuaren emendakinak edo zuzenketak proposatzean kontuak orekatzen ahalegindu gara, alegia, gastuak, aurrezki eta diru-sarrerekin ekilibratzen. Gure 12 emendakinak ondorengoak dira:*

Hemos equilibrado nuestras enmiendas en el sentido de propuestas de ahorro, propuestas de gastos y propuestas de ingresos. Nuestras 12 enmiendas son las siguientes:

*Guk gutxiago aurreztea proposatu dugu, 400.000 € aurreztea. Nola? Gobernu-organoetan gutxiago gastatuta, ditugun liberatuen kopurua murriztuta (alkatetza-koordinatzailea, adibidez), eta alkatearen zein liberatuen soldatak EUDELen baremoetara jaitsita. Horrekin guztiarekin, 250.000 € aurreztuko genituzke.*

Nosotros hemos propuesto ahorrar menos, ahorrar 400.000€ ¿cómo? gastando menos en órganos de gobierno, reducir los liberados que tenemos, el coordinador de alcaldía y bajar los sueldos tanto del Alcalde como de los liberados a los baremos que pone EUDEL con esto hacemos una reducción de 250.000€.

*Informatika-zerbitzuen mantentzean aurreztea proposatzen dugu. Udal Idazkaritzan gutxiago gastatzea (25.000 € inguru), Herritarren Segurtasunean gutxiago gastatzea (beste 25.000 €) eta eraikin ofizialen mantentzean gutxiago gastatzea proposatzen dugu.*

Proponemos ahorrar en mantenimiento de servicios de informática. Proponemos gastar menos en Secretaría Municipal unos 25.000€, proponemos gastar menos en Seguridad Ciudadana otros 25.000€ y también en el mantenimiento de edificios oficiales.

*Aurrezteko proposamen guztiak gastua gehitzera eta, bereziki, gizarte-ongizateko gastua gehitzera bideratuta daude. Etxez etxeko laguntzarako eta gizarte-larrialdietarako laguntzetarako diru kopuru handiagoa eman nahi dugu, premiak dituzten familiei diru gehiago eman nahi diegu, Fernandok ongi baino hobeto laburbildu digunez.*

Todas las propuestas de ahorro van enfocadas al incremento del gasto y el incremento del gasto en Bienestar Social. Queremos incluir más ayudas en asistencia a domicilio, más cantidad en ayudas de emergencia social, queremos meter más dinero a familias necesitadas, lo mismo que nos ha resumido Fernando estupendamente.

*Egia esan, Gizarte Ongizatearen Arloa egiten ari den lana bultzatzea eta urtea zaila den kasurako erresistentzia-kutxa bat izatea da gure asmoa, kasu horretan maniobra-marjina izan dezagun.*

Realmente no queremos más que apoyar el trabajo que está realizando el Área de Bienestar Social y tener una caja de resistencia mayor en caso de que el año sea complicado y tengamos margen de maniobra.

*Beste zuzenketa batek gastua gehitzea proposatzen du. Kultura-kolektiboentzako diru-laguntzetarako gastua gehitzea eta Antzokiko zinema eta musikako programaziorako gastua gehitzea. Izan ere, 25.000 €-tan murriztu da programazioan, eta gero argi-gastu handiagoa sartu da aurrekontuan. Horrela, beraz, Antzokiak izan duen murrizketa, gaur hemen ikuskizun moduan bagaude eta kobratzen ez badugu ere, baina benetan nahi duguna kulturan inbertitzea da. Gure zuzenketak ildo horretan orekatu ditugu, Antzokiko gastua gehituta, murrizketarik gabe.*

Otra de las enmiendas consiste en el incremento del gasto. Incrementar el gasto en subvenciones a colectivos culturales, incrementar el gasto en la programación, cine y música del Antzoki, ya que ha sido reducida en 25.000€, en programación y después se ha presupuestado más en gasto de luz, entonces realmente la reducción que ha sufrido el Antzoki aunque hoy estemos aquí en plan espectáculo y no cobremos, pero realmente lo que queremos es que hay que invertir en cultura. Nuestras enmiendas también las equilibramos en este sentido, incrementar el gasto en el Antzoki y que no se reduzca.

*Eta keinu nabarmen bat egin nahi diogu euskarari, hau da, ikasten ari diren pertsonek jasotzen dituzten diru-laguntzak gehitzea proposatzen dugu, pizgarri gehiago eta motibazio handiagoa izan ditzaten.*

Y también hacer un guiño claro al euskera en el sentido de aumentar las subvenciones que reciben las personas que están estudiando para que tengan más promociones, más motivación.

*Azken batean, guk uste dugu aurkeztu ditugun zuzenketak ez direla zentzugabeak. Gu Ermuan bizi gara, Ermuan lo egiten dugu eta oinak Ermuan ditugu, eta Kontu-hartzailetzaren txostenak doitu egiten direla uste badugu ere, joan den urtean txosten negatibo bat izan genuen, aurrekontuak 4 milioitan gehitu zirenean. Kontu-hartzailetzak besoa jaso zuen, aurten ez du besoa jasotzen, badirudi beti mugan jokatzen ari garela, Madrilgo legeei begira. Egia esan, korapilatsu samarra da, eta gure osoko zuzenketaren filosofia edo espiritua ez da ohartaraztea eta izua sortzea, baina herriari egia esan behar zaio, eta arriskua hor dagoela esan behar da, jendeak bere ikuspegia izan dezan. Zuzenketa partzialak gastuak murrizteko eta gizarte-ongizaterako*

En definitiva creemos que las enmiendas que presentamos no son descabelladas. Las hacemos desde gente que vivimos en Ermua, dormimos en Ermua, tenemos los pies en Ermua y a pesar de que creamos que los informes de Intervención son los que se ajustan, el año pasado tuvimos un informe negativo de información cuando se incrementaron en 4 millones los presupuestos. Intervención levantó la mano, este año no levanta la mano, parece que estamos jugando siempre al límite, viendo las Leyes de Madrid….realmente es un poco complicado pero la filosofía o el espíritu de nuestra enmienda a la totalidad no es avisar y crear el pánico sino que hay que contar al pueblo la verdad y decir que existe ese riesgo y que está ahí y que la gente tenga un poco de perspectiva y las enmiendas parciales están

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

*partidak gehitzeko pentsatuta daude".*

hechas con el sentido de reducir gastos y aumentar partidas de Bienestar Social.

*Totorika jaunak adierazi duenez, "arriskua ez jarduteak dakar. Ermuak premia du, eta asmo handiko helburuak lortzeko aukera du.*

El Sr. Totorika manifiesta que, el riesgo es no actuar. Ermua tiene necesidad y tiene la oportunidad de acometer objetivos ambiciosos.

*Teknologiaren eta beste gauza batzuen aldeko apustua egin dutenek asmatu egin dute, denek asmatu dute, eta apusturik egin ez dutenek, berriz, galdu.*

Los que han apostado por tecnología y por otras cosas han acertado, han acertado todos y los que no han apostado han perdido.

*Ez dugu uste ikaratu behar dugunik, eta are gutxiago izua helarazi behar dugunik. Bilduk erabili dituen terminoak ez datoz bat errealitatearekin, porrot-arriskua aipatu duzue, eta zuen proposamena ez jardutea da.*

No creo que debamos asustarnos y mucho menos trasladar literalmente pánico porque los términos que ha utilizado Bildu no se corresponden con la realidad y habéis utilizado riesgo de quiebra, bancarrota y, la propuesta es no actuar.

*San Pelaioko eskailera mekanikoen gaiak badu zentzua, baina krisia amaitzen denean izango du erabateko zentzua. Orduan lehentasun bihurtuko da, baina gaur egun ez da, eta are gutxiago aipatu duzuen 400.000 €-ko zifrarekin. Eskailera horien kostua 1.500.000 € da gutxienez. San Pelaio plazara iritsi behar da, eta agian lau edo bost tarte beharko dituen kota bat gainditu behar da".*

Del tema de las escaleras mecánicas de San Pelayo tienen todo el sentido pero lo tendrán cuando sucedan dos cosas: una que hayamos acabo la crisis, eso entonces tiene sentido y se convierta en prioridad hoy no lo es y mucho menos con cifras como los 400.000€ que habéis manejado, esas escaleras cuestan no menos de 1.500.000€ porque hay que llegar de la plaza de San Pelayo y resolver una cuota que quizás nos exija cuatro o cinco tramos.

*Caballero andreak honako hau adierazi du: "Ezker Batuak berriz ere poza agertu nahi du, oraingo honetan parte-hartzean oinarritutako aurrekontuak abian jartzeko borondate politikoa ikusi dugulako. Bere garaian –eta berriz ere amorrua adierazteko eskubidea baliatuko dut–, 201eko martxoan, Ezker Batuak mozioa aurkeztu zuen parte-hartzean oinarritutako aurrekontuak abian jartzeko, baina ez zuen aurrera egin. Ezein talde politikok ez zigun babesa eman; azkenean denok horrelako aurrekontuak abian jartzearen alde gaudela*

La Sra. Caballero manifiesta que, volver a congratularnos desde IU porque en esta ocasión se haya visto como dije en su día la voluntad política de poner en marcha los presupuestos participativos que en su día y vuelvo a ejercer mi derecho a pataleta, en marzo de 2010 IU presentó la moción para poner en marcha ya entonces presupuestos participativos, ya podíamos haber estado trabajando los presupuestos participativos y no fue así. Ningún grupo político nos apoyo, quiero simplemente que conste en acta que por fin todos estamos de acuerdo en ponerlos

*aktan jaso dadin nahi dut, besterik gabe, eta ez naiz honekin luzatuko. Espero dut erreferenduma erabiltzea beharrezkoa den gaietan kontsultatzeko era eroso eta sistematiko gisa. Gure ustez, aurtengo aurrekontuek balio handiko alderdi bat dute: arlo sozialari eman zaion bultzada. Izan ere, Udala aitzindaria izan da Debabarrenan arrisku ekonomikoko egoeran dauden familia guztiei laguntzen. Ikuspuntu horretatik, aurrekontuen alde gaude; oso garrantzitsua da jendearen sufrimendua kontuan hartzea, eta uste dut hori ez dela inoiz galdetzen. Ea jendea zer egoeratan dagoen. Jakin badakigu jende asko lanik gabe dagoela, urritasun ekonomikoarekin, eta uste dut era horretan Udala herritarrengana neurri handixeago batean hurbiltzen has gaitezkeela.*

*Eskerrik asko".*

*Gisasola jaunak honako hau adierazi du: "gauza on bat aterako dugu gaur hemendik: dirudienez, badakizu San Pelaioko eskaileren kostua zenbatekoa izan daitekeen. Nik berriz gogorarazi nahi dut 2011ko apirilaren 17an egin zenuen promesa, legegintzaldi honetan eskailerak izango genituela, alegia.*

*EAJ/PNVk aurrekontuetan parte hartzeko aukera izatea proposatu zuenean, funtsean bilatzen genuena zera zen, herri honetako jende gehienak garbi izatea aurrekontua aipatzen dugunean zenbat dugun, nondik ateratzen den eta zertan erabiliko dugun jakiteaz ari garela. Nik ez dakit egun hauek –gaurkoa eta duela hamabost egunekoa– horretarako baliagarriak izan diren ala ez, baina, behintzat, espero dut etorkizunean denok –eta ni lehena– hiru kontzeptu horiez jabetzeko bidearen hasiera izatea: zenbat dugun, nondik ateratzen den eta zertan erabiliko dugun. Espero dut, halaber, emango diogun erabilera erabakitzean herritar guztiok parte hartzeko aukera*

en marcha y no me voy a repetir esperemos que usemos el referéndum como forma de consulta cómoda y sistemática para las cosas que sean necesarias ser consultadas y que como punto de gran valor que consideramos que tienen los presupuestos de este año es el impulso que se ha dado al Área Social para apoyar como Ayuntamiento pionero de al menos la Comarca del Bajo Deba a todas las familias en situación de riesgo económico de tal manera que en ese sentido nuestro visión es favorable sobre los presupuestos, pesa mucho el que se tenga en cuenta el sufrimiento de la gente que creo que es lo que nunca se pregunta. A ver la gente qué tal está. Sabemos que está la gente sin trabajo pasando penurias económicas y creo que de esta manera empezamos a humanizar un poco más este Ayuntamiento.

Eskerrik asko.

El Sr. Gisasola manifiesta que, lo bueno que sacaremos de aquí hoy es que parece ser que ya sabes cuánto pueden costar esas escaleras de San Pelayo, yo repito la promesa la hiciste el 17 de abril del 2011 diciendo que en esta legislatura habría escaleras.

Cuando EAJ/PNV propuso que hubiera una forma de participar en los presupuestos básicamente lo que nosotros queríamos es que la mayor cantidad de gente de este pueblo llegara a tener claro que cuando hablamos del presupuesto estamos hablando de cuánto tenemos, de dónde sale y a qué lo dedicamos; yo no sé si estas jornadas la de hoy y la de hace 15 días han servicio para eso, pero desde luego espero que sean un inicio para que en el futuro desde luego todos tengamos más claro, yo el primero, esos tres conceptos, cuánto tenemos, de dónde sale y a qué se dedica y que al final ese a qué se dedica sea una forma en la que todos y todas las personas de este pueblo participemos y sepamos cómo invertir ese dinero por las

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

*izatea, eta ezaugarri ekonomikoak, sozialak eta kulturalak oro har kontuan hartuta, diru hori inbertitzen jakitea.*

*Bada beste gauza bat, joan den egunean eta gaur ere aipatu duzuna: "arrisku" eta "apustu" hitzez ari naiz. Esan nahi dizut gauden garaian arriskua eta apustua kasinorako utzi beharko direla, eta norberaren diruarekin gainera. Izan ere, ez dut uste arriskuak hartzeko egoerarik onenean gaudenik.*

*Aurrekontuetan parte hartzeko aukeraren inguruan proposatu genuen beste gauza bat web-orrian hiru hilean behin helburuen berrikuspena egitea zen. Orduan, gaur aurrekontua onartzen badugu, hiru hilabete horietako lehen eguna izango da bihar, eta espero dut hemendik hiru hilabetera web-orrian aurrekontuen lehen balioespena izatea eta, lehen gardentasun-ekintza gisa, jardunaldi hauek Antzokian antolatu izanak (hain ongi laguntzen ari diren pertsonekin eta streaming bidez emanda; pentsatzen dut norbait izango dugula begira) zenbat balio izan duen jasotzea eta emandako liburuxkarekin batera zenbateko gastua eragin duen jakiteko aukera izatea.*

*EUDELek euskal udalen berrikuntza-diagnostikoari buruz egindako txostenean oso ongi geratu ginen; uste dut Euskadiko notarik altuena dugula, alde handiarekin gainera. Galderetako batek honako hau dio: zein da zure udaleko egoerarekin antz gehien duen aukera, gobernu-taldearen estrategia eta helburuak definitzeari dagokionez? Eta Udaleko arloko zuzendariek erantzun zutenez, "Udalaren politika hauteskunde-programaren eta udal-aurrekontuaren inguruan artikulatzen da. Bi*

características económicas, sociales y culturales en el más amplio sentido de la palabra.

Hay otra cosa que tanto el otro día como hoy ha mencionado y es la palabra "riesgo" y la palabra "apuesta" y yo a eso te voy a responder que el riesgo y la apuesta en los tiempos en los que estamos tendrá que ser en el casino y con el dinero de cada uno porque no creo que estemos en la mejor de las posiciones para arriesgarnos tanto.

Otra cosa que propusimos cuando hablamos de participación a los presupuestos fue que también hubiera en la página Web una revisión trimestral de los objetivos, entonces si hoy se va a aprobar el presupuesto yo digo que mañana es el primer día de esos tres meses y espero que dentro de esos tres meses tengamos ya una primera valoración en la página Web de estos presupuestos y que se incluya también como primer ejercicio de transparencia cuánto a supuesto al pueblo de Ermua el que se organicen estas jornadas en el Antzoki con personas que nos están atendiendo, muy bien por cierto, con una retransmisión en strimin que supongo que habrá gente que nos está viendo y que tengamos la oportunidad de saber cuánto ha supuesto junto con el folleto que se entregó, etc.

En el informe de EUDEL sobre el diagnóstico de innovación de los Ayuntamientos Vascos salimos tan bien parados, creo que tenemos la mejor nota de Euskadi con diferencia, hay una de las preguntas que dice ¿cuál es la situación que más se parece a la de su Ayuntamiento en relación con la definición de la estrategia y los objetivos del equipo de gobierno? y a este respondieron los Directores de Área del Ayuntamiento que en la política del Ayuntamiento se articula entorno al programa

*horiek dira erreferentziazko dokumentuak udal-politikarako, hala legegintzaldirako nola urteko kudeaketarako".*

electoral y al presupuesto municipal, ambos son los documentos de referencia en la política municipal para la legislatura y para la gestión anual.

*Guk aurrekontuak, jendeak parte hartzeko aukera eta aurretik ulertu beharra aipatu ditugu lehen, eta espero dugu arloko zuzendarien diagnostiko hori errealitate izatea. Hauteskunde-programari dagokionez, eta uste dut web-orriaz arduratzen den pertsona hemen dagoela, gauza ona izango litzateke kontsultatzeko aukera izatea, eta ez bakarrik orain ezkutuan dagoen gobernu-programa. Gainera, 2007-2011 laurtekokoa da, eta web-orrian ez dago 2011tik aurrerako ezer aurkitzerik.*

Nosotros cuándo hemos hablado de presupuestos y que la gente pueda participar y que antes pueda entender estamos diciendo que esto que es el diagnóstico de los propios Directores de Área sea una realidad y en cuanto al programa electoral, que creo que está la persona que se encarga de la página web, estaría también bien que lo pudiéramos consultar y no solamente el programa de gobierno que ahora está oculto y además es el del cuatrienio 2007-2011 y que del 2011 en adelante en la página web todavía es imposible encontrar nada.

*Eskerrik asko".*

Eskerrik asko.

*Sáenz de Zaitegi jaunak hitza hartu eta eskerrak eman dizkie bertaratutakoei etortzeagatik eta bere mezua argi utzi nahi izan du honakoa eskatuz: "gardentasuna, bai Udalean eta bai aurrekontuak egitean".*

El Sr. Sáenz de Zaitegi manifiesta, que transparencia a la hora de hacer los presupuestos y a la hora de gestionar el Ayuntamiento.

*Parte-hartzean oinarritutako aurrekontuak, aurrezpena. Hain urte zail honetan eta beharbada datorren urtean gastu sozial handiagoa izatera bideratutako aurrezpena, eta berdintasunaren, euskararen, ingurumenarekiko sentikortasunaren eta kulturaren aldeko kanpainak. Herritarrei keinu handiagoa egingo dien aurrekontua.*

Presupuestos participativos, ahorro. El ahorro enfocado a tener más gasto social en este año tan complicado y quizás también el año que viene y campañas por la igualdad, por el euskera, por la sensibilidad con el medioambiente, con la cultura. Un presupuesto con más guiño hacia el pueblo.

*Eskerrik asko.*

Eskerrik asko.

*Lecumberri jaunak honako hau adierazi du: "lehenik eta behin, berriz ere eskerrak eman nahi dizkiot Caballero andreari, dagokidan aldetik, arlo sozialaren gaiaren inguruan bota dituen laudorioengatik, baina, jakina, ez naiz horretan jardun duen bakarra izan.*

El Sr. Lecumberri manifiesta que, en primer lugar agradecer otra vez a la Sra. Caballero por la parte que me toca los parabienes que has lanzado en el tema de lo social, por la parte que me toca, pero evidentemente no soy el único responsable.

*Kezka Bilduk aipatu duen gastu sozialarekin. Tentuz hartzeko gaia da,*

Preocupación por el gasto social que dice Bildu. Es un tema lo suficientemente

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

*arinkeriarik eta demagogiarik gabe. Bada datu bat, agian guztiok ezagutzen ez duzuena: gizarte-zerbitzuen arloko aurrekontuak ez ditu zinegotziak lantzen, ez ditu arloko zuzendariak lantzen. Jakina, ordezkari politikoa naizen aldetik, jarraibide batzuk zehaztu behar ditut, baina aurrekontua gizarte-langileek lantzen dute; haiek dira egunez egun errealitateari itsatsita bizi direnak, alderdi politikoek ezartzen dizkieten mugak ongi baino hobeto ezagutzen dituztenak. Aurrekontuen prozesuak horrela funtzionatzen du, eta aurrekontuak gizarte-langileek lantzen dituzte. Orduan, gauza hauetan demagogian ez murgiltzearren, Bilduri esan nahi diot lasai-lasai egon daitekeela, aurrekontuan txertatutako partidak errealitatearekin bat baitatoz erabat, eta, gainera, arestian erakutsi nahi izan dudanez, zentzuzko igoerak egin ditugu. Uste dut garrantzitsua dela hori agerian uztea, eta, nolanahi ere, berriz ere agerian utzi nahi dut gobernu-talde honek % 833tan igo duela Udalak gizarteratzeko bideratzen dituen laguntzen partidak, eta ahal dugunera moldatzen ari garela. Izan ere, mugatuta gaude, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Lege bat dugu, eta, kontu-hartzaileak zioenez, gure gastu-ahalmena eta gastuaren muga ez da irudi finko bat, gauza dinamikoa da, horixe da gure muga, eta ezin dugu nahi dugun guztia egin, mugatuta baikaude. Gobernu-taldeak EAJk zuzenketetan proposatutako 800.000 €-ak eta Bilduk proposatutako 344.000 €-ak onartu izan balitu, gastuaren legea hasiera-hasieratik urratzen hasiko ginateke, eta, hortik aurrera, datorren nahaspila guztia. Hortaz, gastatu egin behar dugula, gehiago gastatu behar dugula esaten denean, kontu handia izan behar da.*

*Gure gobernu-taldeak erakutsi du*

delicado para alegrías, demagogias las justas. Quizás hay un dato que no todo el mundo lo sabe pero los presupuestos de Servicios Sociales no los elabora el Concejal ni los elabora la Directora de Área, evidentemente yo como responsable político tengo que marcar unas directrices pero las personas que elaboran el presupuesto son las trabajadoras sociales que son las que están pegadas día a día a la realidad, las que saben perfectamente cuáles son los límites que la parte política les pone porque el conjunto de los presupuestos funciona así, pero son ellas las que los elaboran, entonces para no entrar en demagogia con cosas de éstas le quiero decir a Bildu que tenga la total y absoluta tranquilidad de que las partidas que están presupuestadas son muy ajustadas a la realidad y además como he intentado demostrar antes con unos incrementos más que razonables. Me parece que es importante ponerlo en valor y en cualquiera de los casos e insisto vuelvo a poner en valor que este equipo de gobierno en dos años ha aumentado la partida de ayudas municipales de inclusión social en un 833% y estamos ajustándonos a lo que podemos porque también hay un tema que es que estamos limitados porque tenemos una Ley de Estabilidad Presupuestaria y como decía la Interventora nuestra capacidad y límite de gasto no es una foto fija, es una cuestión dinámica y ese es nuestro límite y no podemos hacer todo lo que queremos porque estamos constreñidos y limitados. Si el equipo de gobierno hubiera admitido los 800.000€ propuestos en enmiendas por el PNV y los 344.000€ propuestos por Bildu la regla del gasto empezaríamos a incumplirla desde el momento uno y a partir del ahí todo el lío que viene, con lo cual cuándo se dice vamos a gastar, vamos a gastar y hay que gastar más tenemos que tener mucho cuidado.

Nosotros como equipo de gobierno

*apustu garrantzitsua egin duela egoera jakin batean, Caballero andreak onartu duen bezala, baina muga batzuk ditugu, ezin dugu nahi dugun guztia egin, hiru gai horiek mugatuta uzten gaituzte, baina, horiei esker, horiei eusteko gauza bagara, hainbat gauza egiteko moduan egongo gara, gaur eta bihar ez ezik, abenduaren 30ean ere bai, ordura arte jarraitu behar baitugu.*

hemos demostrado que hemos hecho una apuesta importante con una situación determinada como muy bien reconocía la Sra. Caballero pero tenemos nuestras limitaciones, no podemos hacer todo lo queremos porque tenemos esas tres cuestiones que nos están constriñendo y gracias a las cuáles si nosotros las seguimos manteniendo podremos hacer determinadas cosas, no solamente hoy ni mañana sino posiblemente el 30 de diciembre porque ese es nuestro horizonte.

*Gai astuna da, bai, baina komeni da dagokiguna aztertzea, eta, niri dagokidan aldetik, berriz adierazi nahi dut gobernu-taldeak, Ermuko Udalak (erne, gainerako talde politikoen laguntzarekin) zentzuzko igoerak lortu dituela gizarte-zerbitzuen arloko alderdi jakin batzuetan.*

Es un tema árido, sí, pero sí que conviene que estudiemos lo que nos corresponde y por la parte que me corresponde insistir en que el equipo de gobierno, el Ayuntamiento de Ermua y ojo, con el apoyo del resto de los grupos políticos consigue unos incrementos mas que razonables en determinados aspectos de Servicios Sociales.

*Gizarteratzeko udal-laguntzen aldeko apustua egin dugu guk. Ermuak 16.000 biztanle ditu, eta 100.000 € jarri ditugu; Getxok ia 100.000 biztanle ditu, eta kopuru bera jarri du, 100.000 €. Balantza batean jarriz gero, nork egin du ahalegin handiagoa? Bidezkoa da onartzea eremu horretan ez garela hain gaizki ari, eta nahikoak dira hondamen ekonomikoa jasateko arriskuan dauden familiei laguntzeko Plan Integralaren inguruan esaten direnak. Nik uste dut Udal osoa poztu egiten dela beste udal edo erakunde batzuek ehuneko ehunean edota proportzio handian kopiatzen dutela ikustean. Horrek esan nahi du ez garela hain gaizki kudeatzen ari gizarte-zerbitzuen gaia".*

Nosotros hemos apostado por las ayudas municipales de inclusión social y ponemos 100.000€ Ermua 16.000 habitantes. Getxo casi 100.000 habitantes los mismos 100.000€, y si ahora ponemos en una balanza quién hace más esfuerzo? sería justo reconocer que las cosas no se están haciendo dentro de este ámbito del todo mal y basta ya decir que este Plan Integral de Ayuda a familias en riesgo de quiebra económica, yo creo que todo el Ayuntamiento se siente muy contento cuando ve que hay Ayuntamientos u otras instituciones que o bien lo copian al ciento por cien o lo copian en un porcentaje más que interesante, eso quiere decir que tan mal no estaremos gestionando el tema de los Servicios Sociales.

*Totorika jaunak honako hau adierazi du: "Ermuak hainbat arlotan, berrikuntzan oro har, eta epe luzerako erronketan duen estrategia duela urtebete baino gehiago onartu zuen Udalak. Behin baino gehiagotan aurkeztu dugu, eta berriz aurkeztuko dugu, oso ongi iruditzen baitzait, alde zein aurka egon.*

El Sr. Totorika manifiesta que, la estrategia que tiene Ermua en diversas materias y en innovación en general y en retos de largo plazo está aprobada en el Ayuntamiento hace mas de un año. La hemos presentado en más de una ocasión y la volveremos a presentar porque me parece estupendo la compartamos o no la

compartamos.

*Jakingo duzuenez, Ermua Espainiako 20.000 biztanletik beherako 10 hiri berritzaileenen artean dago, eta Hiri Berritzaileen Sarean aurkeztu dugu. Berritzaileak garen ala ez garen ikusteko diot. Izan ere, han ez dago edonor, eta Ermua badago, eta ez dago kasualitatez. Estrategia bat aurkeztu behar izan genuen eta eztabaidatu behar izan genuen, baina ongi dago estrategia eztabaidatzea; gaur bertan, gai estrategikoei buruz hitz egin dugu, eta ideiak eta hitzak nahasten eta kontraesanetan erortzen ari gara behin eta berriz.*

Para presentarla en la Red de Ciudades Innovadoras que como sabéis todos Ermua está de forma notable entre las 10 ciudades innovadoras de España de menos de 20.000 habitantes, digo por la cuestión de si somos o no innovadores porque allí no está cualquiera y Ermua está y no está por casualidad requirió que se presentara una estrategia y que se debatiera pero la estrategia es bueno debatirla porque hoy mismo hemos estado hablando de temas estratégicos y estamos permanentemente mezclando ideas, palabras y contradiciéndonos.

*Enpleguak kezkatzen gaituela esaten badugu, ezin dugu esan handik minutu batera gaizki iruditzen zaigula 75.000 € Prestakuntza Funtsera bideratzea, eta ezin dugu esan aurrezkiak izatea gehiegikeria dela. Tira, gehiegikeria horri esker, dagokion Foru Arauaren bidez legezkotasuna lortzen bada, Bizkaiko enplegu-planik garrantzitsuenetako bat egin ahal izango dugu, legez ahal baldin bada, eta ahal izango da, aurrezkiak ditugulako, eta dena lotuta dago. Nire ustez, estrategiari buruzko eztabaida ona da.*

Si decimos que nos preocupa el empleo lo que no se puede decir es que nos preocupa el empleo y un minuto después decir que parece un mal destino los 75.000€ al Fondo de Formación o decir que el que tengamos ahorros es una exceso, bueno ese exceso que en este momento nos va a permitir si se abre la puerta de la legalidad a través de la Norma Foral correspondiente a realizar uno de los planes de empleo más importantes de Bizkaia, si es posible, legalmente y va a ser posible porque tenemos ahorros y está todo mezclado y yo creo que el debate de la estrategia es un buen debate.

*Nik uste dut aukera izango dugula gai askori buruz hitz egiteko parte-hartzean oinarritutako aurrekontuen bitartez, baina ordena handiagoarekin. Eztabaidak egiteak zabalduko digun bidea denontzat onuragarria izango delakoan nago. Ekainean, pentsatu nahi dut astean behin bilduko garela horri buruz metodologiaren ikuspegitik hitz egiteko, eta irailean helduko diogu berriz gaiari; hau da, datorren urtean beste formatu bat izango dugu guztion parte-hartzea ahalbidetzeko.*

Creo que tendremos ocasión de hablar de muchos de los temas a través de los presupuestos participativos pero con un poco más de orden y creo que el recorrido que nos puede dar el que hagamos debates creo que será muy deseable para todos. En junio, quiero creer que vamos a hacer una reunión semanal para hablar al respecto en claves de metodología y en septiembre seguiremos hablando del tema; es decir, el año próximo nos vamos a encontrar con otro formato para posibilitar la participación de todos.

*Ez dut uste kea saltzen ari garenik, Rosa, apustua nirea da, benetan, baina guztion apustua izan behar du, eta uste dut taldeek badutela borondatea, baina herritarren parte-hartzea ere behar dugu. Horretarako ahalegin handia egin behar da, eta pozgarria izango litzateke lortzea.*

*Eskerrik asko".*

*Amaitu ditugu eztabaidatzeko hiru txandak. Orain bozkatu egingo dugu, eta Udalbatzar honen gai-zerrendako proposamenak jasotzen duena formalizatuko dugu.*

No creo que estemos hablando de humo, Rosa la apuesta es en serio la mía, pero tiene que ser una apuesta de todos y creo que por parte de los grupos hay voluntad lo que pasa es que requerimos también la participación de los ciudadanos, requiere un esfuerzo y ojala lo consigamos.

Eskerrik asko.

Hemos terminado con los tres turnos de debate vamos a proceder a votar y a formalizar lo que viene en la propuesta del orden del día de este Pleno.

**1. *13/04/30EAN ETA 2013/05/15EAN EGINIKO BILKUREN AKTAK ONESTEA***

*Alkateak galdetu du ea udalkideren batek deialdiarekin batera banaturiko azken bilkuren aktei buruz zerbait adierazi nahi duen, baina inork oharrik egin ez duenez, aktak bozketara jarri dira, emaitza ondokoa izanik:*

**1. APROBAR LAS ACTAS DE FECHA 30/04/2013 Y 15/05/2013**

El Alcalde pregunta si algún/a miembro de la Corporación tiene que formular alguna observación a las actas distribuidas con la convocatoria, y no habiendo observaciones a las mismas, se somete a votación, con el resultado siguiente:

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN/*BOZKETAREN EMAITZA***

**A FAVOR/*ALDEKOAK*:** PSE-EE/PSOE, PP, EAJ/PNV, EZKER ANITZA-IU

**ABSTENCIONES / *ABSTENZIOAK*:** Sáenz de Zaitegi, Sarasua (ausentes/*ez zeuden*)

***Lehenengo erabakia:***

***"Udalbatzarrak 2013/04/30 eta 2013/05/15eko eginiko bilkuren aktak onartzea, Toki-erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Lege-erregimenari buruzko Araudiaren 36. artikuluan eta Udal Organoen Erregelamenduaren 43.ean ezarritakoari jarraituz".***

**Primer acuerdo:**

**"Aprobar el acta de la sesión celebrada por el Pleno de la Corporación en fecha 30/04/2013 y en fecha 2013/05/15, conforme a lo preceptuado en los artículos 36 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y 43 del Reglamento orgánico propio de la Corporación".**

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

**2. *BILDU UDAL TALDEAK 2013KO UDAL AURREKONTUARI EGINDAKO ZUZENKETAK EZESTEA***

*Jarraian BILDUK aurkeztutako zuzenketak ezesteari buruz bozkatu dute, emaitza ondorengoa izanik:*

*Aldeko botoak: Totorika, Prol, López, Clemente, Araujo, Alonso, Ledesma, Lecumberri, Pérez, Arroyo eta Marín.*

*Kontrako botoak: Sáenz de Zaitegi eta Sarasua.*

*Abstentzioak: Gisasola, Araiztegi eta Caballero.*

*Ondorioz, honakoa erabaki dute:*

***Bigarren erabakia:***

***"BILDU udal taldeak 2013ko Udal Aurrekontuari egindako zuzenketak ezestea".***

**2. DESESTIMAR LAS ENMIENDAS AL PRESUPUESTO MUNICIPAL CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2013, PRESENTADAS POR BILDU**

Seguidamente se procede a la votación de la desestimación de las enmiendas presentadas por BILDU, con el resultado siguiente:

Votos a favor: Totorika, Prol, López, Clemente, Araujo, Alonso, Ledesma, Lecumberri, Pérez, Arroyo y Marín.

Votos en contra: Sáenz de Zaitegi y Sarasua.

Abstenciones: Gisasola, Araiztegi y Caballero.

En consecuencia se adopta el,

**Segundo acuerdo:**

**"Desestimar las enmiendas al Presupuesto Municipal correspondiente al ejercicio 2013, presentadas por BILDU".**

**3. *EAJ/PNV UDAL TALDEAK 2013KO UDAL AURREKONTUARI EGINDAKO ZUZENKETAK EZESTEA***

*Jarraian EAJ/PNVk aurkeztutako zuzenketak ezesteari buruz bozkatu dute, emaitza ondorengoa izanik:*

*Aldeko botoak: Totorika, Prol, López, Clemente, Araujo, Alonso, Ledesma, Lecumberri, Pérez, Arroyo eta*

**3. DESESTIMAR LAS ENMIENDAS AL PRESUPUESTO MUNICIPAL CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2013, PRESENTADAS POR EAJ/PNV**

Seguidamente se procede a la votación de la desestimación de las enmiendas presentadas por EAJ/PNV, con el resultado siguiente:

Votos a favor: Totorika, Prol, López, Clemente, Araujo, Alonso, Ledesma,

*Marín.*

Lecumberri, Pérez, Arroyo y Marín.

*Kontrako botoak: Gisasola, Araiztegi, Sáenz de Zaitegi, Sarasua eta Caballero.*

Votos en contra: Gisasola, Araiztegi, Sáenz de Zaitegi, Sarasua y Caballero.

*Ondorioz, honakoa erabaki dute:*

En consecuencia se adopta el,

***<u>Hirugarren erabakia:</u>***

**<u>Tercer acuerdo:</u>**

***“EAJ/PNV udal taldeak 2013 Udal Aurrekontuari egindako zuzenketak ezestea”.***

**“Desestimar las enmiendas al Presupuesto Municipal correspondiente al ejercicio 2013, presentadas por EAJ/PNV“.**

**4. *2013 URTEALDIARI DAGOKION AURREKONTU OROKORRA ONESTEA***

**4. APROBAR EL PRESUPUESTO GENERAL CORRESPONDINTE AL EJERCICIO 2013**

*Jarraian bozkatu egin dute gaia, eta emaitza ondorengoa izan da:*

Seguidamente se procede a la votación con el resultado siguiente:

*Aldeko botoak: Totorika, Prol, López, Clemente, Araujo, Alonso, Ledesma, Lecumberri, Pérez, Arroyo eta Marín.*

Votos a favor: Totorika, Prol, López, Clemente, Araujo, Alonso, Ledesma, Lecumberri, Pérez, Arroyo y Marín.

*Kontrako botoak: Sáenz de Zaitegi eta Sarasua.*

Votos en contra: Sáenz de Zaitegi y Sarasua.

*Abstentzioak: Gisasola, Araiztegi eta Caballero.*

Abstenciones: Gisasola, Araiztegi y Caballero.

*Ondorioz, honako erabaki hau hartu dute:*

En consecuencia se adopta el,

***<u>Laugarren erabakia:</u>***

**<u>Cuarto acuerdo:</u>**

***“1. Udalbatzarraren 2013rako Aurrekontu Orokorra hasierako izaeraz onestea. Aurrekontu Orokorrak barne hartzen ditu ondoren zerrendatzen diren aurrekontu guztiak: Udalarena, Udal Euskaltegiko Fundazio Publikoarena, PROIMERSA Udal Sozietatearena, PROMOSA Udal Sozietatearena eta Udal***

**“1º. Aprobar inicialmente el Presupuesto General de la Corporación para el año 2013 en el que se integran el Presupuesto municipal, el Presupuesto de la Fundación Pública del Euskaltegi municipal, el Presupuesto de la Sociedad municipal PROIMERSA, el Presupuesto de la sociedad municipal PROMOSA, y el**

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

*Kirol Erakundearena. Halaber, aurrekontua betearazteko udal araua ere onesten da.*

**Presupuesto del Instituto Municipal de Deportes. Asimismo, se aprueba la Norma Municipal de ejecución presupuestaria.**

| | | |
|---|---|---|
| *A) UDAL AURREKONTUA* | | A) PRESUPUESTO MUNICIPAL |
| | | |
| *GASTUEN EGOERA* | | ESTADO DE GASTOS |
| | | |
| *a) ERAGIKETA ARRUNTAK* | 17.207.425,05 | a) OPERACIONES CORRIENTES |
| | | |
| *1. Langileriari dagozkion gastuak* | 6.558.706,54 | 1. Gastos de personal |
| *2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak* | 6.015.519,21 | 2. Bienes corrientes y servicios |
| *3. Gastu finantzarioak* | 17.144,21 | 3. Gastos financieros |
| *4. Transferentzia arruntak* | 4.616.055,09 | 4. Transferencias corrientes |
| | | |
| *b) KAPITALAREN ERAGIKETAK* | 1.520.986,13 | b) OPERACIONES DE CAPITAL |
| | | |
| *6. Inbertsio errealak* | 703.020,17 | 6. Inversiones reales |
| *7. Kapitalaren transferentziak* | 59.436,00 | 7. Transferencias de capital |
| *8. Aktibo finantzarioak* | 24.000,00 | 8. Activos financieros |
| *9. Pasibo finantzarioak* | 734.529,96 | 9. Pasivos financieros |
| | | |
| *GASTUAK GUZTIRA* | 18.728.411,18 | TOTAL GASTOS |
| | | |
| | | |
| *SARREREN EGOERA* | | ESTADO DE INGRESOS |
| | | |
| *ERAGIKETA ARRUNTAK* | 18.591.714,91 | a) OPERACIONES CORRIENTES |
| | | |
| *1. Zuzeneko zergak* | 3.047.607,00 | 1. Impuestos directos |
| *2. Zeharkako zergak* | 100.000,00 | 2. Impuestos indirectos |
| *3. Tasak eta bestelako sarrerak* | 4.316.943,33 | 3. Tasas y otros ingresos |
| *4. Transferentzia arruntak* | 11.087.392,58 | 4. Transferencias corrientes |
| *5. Ondarezko sarrerak* | 39.772,00 | 5. Ingresos patrimoniales |
| | | |
| *b) KAPITALAREN ERAGIKETAK* | 136.696,27 | b) OPERACIONES DE CAPITAL |
| | | |
| *7. Kapitalaren transferentziak* | 112.696,27 | 7. Transferencias de capital |
| *8. Aktibo finantzarioak* | 24.000,00 | 8. Activos financieros |
| | | |
| | | |
| *SARRERAK GUZTIRA* | 18.728.411,18 | TOTAL INGRESOS |
| | | |
| | | |

| | | |
|---|---|---|
| *B) UDAL EUSKALTEGIKO FUNDAZIOAREN AURREKONTUA* | | **B) PRESUPUESTO FUNDACION EUSKALTEGI MUNICIPAL** |
| | | |
| ***GASTUAK*** | | **GASTOS** |
| | | |
| ***a) ERAGIKETA ARRUNTAK*** | **238.750,00** | **a) OPERACIONES CORRIENTES** |
| | | |
| ***1. Langileriari ordainketak*** | **214.500,00** | **1. Remuneraciones de personal** |
| ***2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak*** | **19.250,00** | **2. Bienes corrientes y servicios** |
| ***4. Transferentzia arruntak*** | **5.000,00** | **4. Transferencias corrientes** |
| | | |
| ***b) KAPITALAREN ERAGIKETAK*** | **4.000,00** | **b) OPERACIONES DE CAPITAL** |
| | | |
| ***6. Inbertsio errealak*** | **4.000,00** | **6. Inversiones reales** |
| | | |
| ***GASTUAK GUZTIRA*** | **242.750,00** | **TOTAL GASTOS** |
| ***SARRERAK*** | | **INGRESOS** |
| | | |
| ***a) ERAGIKETA ARRUNTAK*** | **238.750,00** | **a) OPERACIONES CORRIENTES** |
| | | |
| ***3.Tasak eta bestelako sarrerak*** | **21.360,00** | **3. Tasas y otros ingresos** |
| ***4.Transferentzia arruntak*** | **217.390,00** | **4. Transferencias corrientes** |
| | | |
| ***b) KAPITALAREN ERAGIKETAK*** | **4.000,00** | **b) OPERACIONES DE CAPITAL** |
| | | |
| ***7. Kapitalaren transferentziak*** | **4.000,00** | **7. Transferencias de capital** |
| | | |
| ***SARRERAK GUZTIRA*** | **242.750,00** | **TOTAL INGRESOS** |
| | | |
| *C) PROIMERSA UDAL SOZIETATEAREN AURREKONTUA* | | **C) PRESUPUESTO DE LA SOCIEDAD MUNICIPAL PROIMERSA** |
| | | |
| ***GASTUEN EGOERA*** | | **ESTADO DE GASTOS** |
| | | |
| ***a) ERAGIKETA ARRUNTAK*** | **52.308,98** | **a) OPERACIONES CORRIENTES** |
| | | |
| ***2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak*** | **52.308,98** | **2. Bienes corrientes y servicios** |
| | | |
| ***b) KAPITALAREN ERAGIKETAK*** | **100.000,00** | **b) OPERACIONES DE CAPITAL** |
| | | |
| ***8. Aktibo finantzarioak*** | **100.000,00** | **8. Activos financieros** |
| | | |
| ***GASTUAK GUZTIRA*** | **152.308,98** | **TOTAL GASTOS** |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

| | | |
|---|---|---|
| *SARREREN EGOERA* | | **ESTADO DE INGRESOS** |
| | | |
| *a) ERAGIKETA ARRUNTAK* | 584.264,00 | a) OPERACIONES CORRIENTES |
| | | |
| *3. Tasak eta bestelako sarrerak* | 460.264,00 | 3. Tasas y otros ingresos |
| *5. Ondare-sarrerak* | 124.000,00 | 5. Ingresos patrimoniales |
| | | |
| *SARRERAK GUZTIRA* | 584.264,00 | TOTAL INGRESOS |
| | | |
| | | |
| *D) PROMOSA UDAL SOZIETATEAREN AURREKONTUA* | | D) PRESUPUESTO DE LA SOCIEDAD MUNICIPAL PROMOSA |
| | | |
| *GASTUEN EGOERA* | | ESTADO DE GASTOS |
| | | |
| *a) ERAGIKETA ARRUNTAK* | 601.373,27 | a) OPERACIONES CORRIENTES |
| *1. Langileriari dagozkion gastuak* | 145.593,61 | 1. Gastos de personal |
| *2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak* | 275.779,66 | 2. Bienes corrientes y servicios |
| *3. Gastu finantzarioak* | 180.000,00 | 3. Gastos financieros |
| | | |
| *b) KAPITALAREN ERAGIKETAK* | 5.913.027,33 | b) OPERACIONES DE CAPITAL |
| | | |
| *8. Aktibo finantzarioak* | 2.300.000,00 | 8. Activos financieros |
| *9. Pasibo finantzarioak* | 3.613.027,33 | 9. Pasivos financieros |
| | | |
| *GASTUAK GUZTIRA* | 6.514.400,60 | TOTAL GASTOS |
| | | |
| *SARREREN EGOERA* | | ESTADO DE INGRESOS |
| | | |
| *a) ERAGIKETA ARRUNTAK* | 990.000,00 | a) OPERACIONES CORRIENTES |
| | | |
| *3. Tasak eta bestelako sarrerak* | 990.000,00 | 3. Tasas y otros ingresos |
| | | |
| *b) KAPITALAREN ERAGIKETAK* | 5.524.400,60 | b) OPERACIONES DE CAPITAL |
| | | |
| *8. Aktibo finantzarioak* | 3.724.400,60 | 8. Activos financieros |
| *9. Pasibo finantzarioak* | 1.800.000,00 | 9. Pasivos financieros |
| | | |
| *SARRERAK GUZTIRA* | 6.514.400,60 | TOTAL INGRESOS |
| | | |
| | | |
| | | |

| | | |
|---|---|---|
| *E) UKEko AURREKONTUA* | | E) PRESUPUESTO IMD |
| | | |
| *GASTUEN EGOERA* | | ESTADO DE GASTOS |
| | | |
| *a) ERAGIKETA ARRUNTAK* | 1.458.792,59 | a) OPERACIONES CORRIENTES |
| | | |
| *1. Langileriari dagozkion gastuak* | 325.110,59 | 1. Gastos de personal |
| *2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak* | 1.133.382,00 | 2. Bienes corrientes y servicios |
| *3. Gastu finantzarioak* | 300,00 | 3. Gastos financieros |
| | | |
| *b) KAPITALAREN ERAGIKETAK* | 62.436,00 | b) OPERACIONES DE CAPITAL |
| | | |
| *6. Inbertsio errealak* | 55.436,00 | 6. Inversiones reales |
| *8. Aktibo finantzarioak* | 7.000,00 | 8. Activos financieros |
| | | |
| *GASTUAK GUZTIRA* | 1.521.228,59 | TOTAL GASTOS |
| | | |
| *SARREREN EGOERA* | | ESTADO DE INGRESOS |
| | | |
| *a) ERAGIKETA ARRUNTAK* | 1.458.792,59 | a) OPERACIONES CORRIENTES |
| | | |
| *3. Tasak eta bestelako sarrerak* | 619.230,00 | 3. Tasas y otros ingresos |
| *4. Transferentzia arruntak* | 831.052,59 | 4. Transferencias corrientes |
| *5. Ondarezko sarrerak* | 8.510,00 | 5. Ingresos patrimoniales |
| | | |
| *b) KAPITALAREN ERAGIKETAK* | 62.436,00 | b) OPERACIONES DE CAPITAL |
| | | |
| *7. Kapitalaren transferentziak* | 55.436,00 | 7. Transferencias de capital |
| *8. Aktibo finantzarioak* | 7.000,00 | 8. Activos financieros |
| | | |
| *SARRERAK GUZTIRA* | 1.521.228,59 | TOTAL INGRESOS |
| | | |
| | | |
| *F) AURREKONTU BATERATUA* | | F) PRESUPUESTO CONSOLIDADO |
| | | |
| *GASTUEN EGOERA* | | ESTADO DE GASTOS |
| | | |
| *a) ERAGIKETA ARRUNTAK* | 18.420.218,20 | a) OPERACIONES CORRIENTES |
| | | |
| *1. Langileriari dagozkion gastuak* | 7.243.910,74 | 1. Gastos de personal |
| *2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak* | 7.291.110,75 | 2. Bienes corrientes y servicios |
| *3. Gastu finantzarioak* | 197.444,21 | 3. Gastos financieros |
| *4. Transferentzia arruntak* | 3.687.752,50 | 4. Transferencias corrientes |
| | | |
| *b) KAPITALAREN ERAGIKETAK* | 7.541.013,46 | b) OPERACIONES DE CAPITAL |
| | | |
| *6. Inbertsio errealak* | 762.456,17 | 6. Inversiones reales |
| *8. Aktibo finantzarioak* | 2.431.000,00 | 8. Activos financieros |

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

| | | |
|---|---|---|
| *9. Pasibo finantzarioak* | 4.347.557,29 | 9. Pasivos financieros |
| | | |
| *GASTUAK GUZTIRA* | 25.961.231,66 | TOTAL GASTOS |
| | | |
| *SARREREN EGOERA* | | ESTADO DE INGRESOS |
| | | |
| *a) ERAGIKETA ARRUNTAK* | 20.725.089,81 | a) OPERACIONES CORRIENTES |
| | | |
| *1. Zuzeneko zergak* | 2.969.807,34 | 1. Impuestos directos |
| *2. Zeharkako zergak* | 100.000,00 | 2. Impuestos indirectos |
| *3. Tasak eta bestelako sarrerak* | 6.280.467,89 | 3. Tasas y otros ingresos |
| *4. Transferentzia arruntak* | 11.202.532,58 | 4. Transferencias corrientes |
| *5. Ondarezko sarrerak* | 172.282,00 | 5. Ingresos patrimoniales |
| | | |
| | | |
| *b) KAPITALAREN ERAGIKETAK* | 5.668.096,87 | b) OPERACIONES DE CAPITAL |
| | | |
| *7. Kapitalaren transferentziak* | 112.696,27 | 7. Transferencias de capital |
| *8. Aktibo finantzarioak* | 3.755.400,60 | 8. Activos financieros |
| *9. Pasibo finantzarioak* | 1.800.000,00 | 9. Pasivos financieros |
| | | |
| *SARRERAK GUZTIRA* | 26.393.186,68 | TOTAL INGRESOS |

*2. Toki Erregimeneko Testu Bateginaren (TETBren) 127. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Udalbatzarraren zerbitzura dauden langileen zerrenda organikoa 2013ko Aurrekontu Orokorrarekin batera onesten da:*

- *Ondorengo lanpostuak kentzea:*

  a) *Idazkaritza eta Zerbitzu Orokorren Alorreko Alkatetzako Idazkaritzaren koordinatzaile-lanpostua, izendapen askekoa.*

- *Egun Teknika eta Hirigintza Alorrera atxikita dagoen "310b kodedun administrari laguntzaile" lanpostua, aurrerantzean Idazkaritza eta Zerbitzu Orokorren Alorrera atxikitzea kode berarekin, Abiapuntu Zerbitzuan*

**2º. En cumplimiento de lo establecido en el artículo 127 TRRL, la plantilla orgánica del personal al servicio de la Corporación se aprueba conjuntamente con el Presupuesto General para el año 2013, con las modificaciones siguientes:**

- **Amortizar los siguientes puestos de trabajo:**

  b) **El puesto de Coordinador/a Secretaría – Alcaldía, del Área de Secretaría-Servicios Generales. De Libre designación.**

- **Readscripción del puesto de trabajo "Auxiliar administrativo/a con el código 310b" actualmente asignado al Área Técnica y de Urbanismo se le adscribe al Área de Secretaría y Servicios Generales para el Servicio**

***jarduteko.***

- ***606, 607, 608 eta 609 kodea duten Udaltzaingoaren agente lanpostuetan AD Administrazioaren atala aldatzea eta lehen dagoen EUri (Ermuko Udala) BA (beste administrazio batzuek) eta ER (Euskal Herriko Polizia-Ertzantzantza) gehitzea, beste administrazio batzuetakoak eta Ertzantzakoak ere izan daitezkeela adierazteko.***

***3. Hasierako izaeraz onartutako 2013rako Udal Aurrekontu Orokorra Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ezagutzera ematea, iragarkia argitaratu eta biharamunetik aurrera hamabost laneguneko epean interesatuek espedientea ezagutu eta egoki irizten dituzten galdapen, alegazio edo iradokizunak egin ditzaten.***

***4. Aurrekontua behin-betiko onartutzat emango da aipatutako epean galdapen, alegazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, eta aurkezten badira Udalbatzarrak ebatziko ditu".***

**de Abiapuntu con el mismo código.**

- **Modificar el apartado AD / Administración de pertenencia en los puestos de agente de la Policía Local con los códigos 606, 607, 608 y 609 incorporando la pertenencia a otras Administraciones (OA ) y a la Policía del País Vasco- Ertzaintza (ER).**

**3º. Exponer al público el Presupuesto General de la Corporación para el año 2013 aprobado inicialmente, mediante anuncio insertado en el Boletín Oficial de Bizkaia por plazo de quince días hábiles contados a partir del siguiente al de su publicación en dicho Boletín, con el objeto de que las personas interesadas puedan conocer el expediente y formular, en su caso, las reclamaciones, alegaciones o sugerencias que estimen oportunas.**

**4º. El Presupuesto se considerará definitivamente aprobado si durante el citado plazo no se presentaren reclamaciones, alegaciones o sugerencias, que si se presentaren, serán resueltas por el Pleno de la Corporación".**

*Bilkura honetan aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, batzordeburuak bilkura bukatutzat jo du bederatziak direnean, eta nik, Idazkaria naizenez, guztiaren fede eman dut.*

No habiendo más asuntos a tratar, de orden del Alcalde se da por finalizada la sesión, levantándose la misma a las veintiuna horas del día de la fecha de todo lo cual como Secretario doy fe.

*Akta honek hogeitazazpi orri ditu, alde bietatik idatzita eta 769tik 822ra zenbakituta.*

Consta esta acta de veintisiete folios, escritos por ambas caras, numeradas del 766 al 822.